



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko martxoaren 28an

33 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

—Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldiko, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abenduaren 27an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Iruñeko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko abenduaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Iruñeko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**AURKIBIDEA**

- | | |
|--|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Helburua (4. or.).</p> <p>III. Norainokoa (5. or.).</p> <p>IV. Iritzia (5. or.).</p> <p>IV.1. Aurrekontuaren likidazioa (6. or.).</p> <p>IV.2. Ondare-egoeraren agerpena (6. or.).</p> <p>IV.3. Legezketasuna (6. or.).</p> <p>IV.4. Kontuen Ganbararen gomendioen jarraipena (6. or.).</p> <p>IV.5. Erakunde autonomoak, enpresak eta fundazioak (6. or.).</p> <p>IV.6. Egoera ekonomiko-finantzarioa 1999ko abenduaren 31n (6. or.).</p> <p>V. 1999ko Finantza-egoerako orriak (7. or.).</p> <p>V.1. Iruñeko Udala (8. or.).</p> <p>V.2. Erakunde autonomoak (12. or.).</p> <p>VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (13. or.).</p> <p>VI.1. Antolamendu orokorra (13. or.).</p> <p>VI.2. Kontabilitatea eta aurrekontuak (13. or.).</p> | <p>VI.3. Kontu-hartzailletza eta barne kontrola (14. or.).</p> <p>VI.4. Langileak (14. or.).</p> <p>VI.5. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (16. or.).</p> <p>VI.6. Transferentzia arruntak (18. or.).</p> <p>VI.7. Kapital transferentziak (18. or.).</p> <p>VI.8. Inbertsioak (18. or.).</p> <p>VI.9. Finantza-pasiboak (20. or.).</p> <p>VI.10. Tributu bidezko dirusarrerak (20. or.).</p> <p>VI.11. Transferentzia arruntak eta kapitalekoak (21. or.).</p> <p>VI.12. Odare dirusarrerak eta herrilurretakoak (22. or.).</p> <p>VI.13. Inbertsio errealak besterentzea (22. or.).</p> <p>VI.14. Finantza kontuak (22. or.).</p> <p>VI.15. Zordunak (22. or.).</p> <p>VI.16. Ibilgetua-inbentarioa (22. or.).</p> <p>VI.17. Epe laburrean jasotako fidantza eta gordailuak (23. or.).</p> <p>VI.18. Aitortutako obligazioetako hartzekodunak (23. or.).</p> <p>VI.19. Balio erantsiaren gaineko zerga (23. or.).</p> <p>VI.20. Hirigintza (23. or.).</p> <p>VI.21. Gorabeherak (24. or.).</p> <p>VI.22. Erakunde autonomoak, enpresak eta fundazioak (24. or.).</p> <p>Gehigarria (28. or.).</p> <p>I. eranskina. Iruñeko Udalaren organigrama (1998) (33. or.).</p> |
|--|--|

II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (34. or.).

Iruñeko alkateak behin-behineko txostenari aurkeztutako **alegazioak** (35. or.).

I. SARRERA

Iruña Nafarroako Foru Komunitateko hiriburua da, eta, 2000ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera 184.145 biztanle ditu. Dena den, bere eragina Iruñerri osora hedatzen da; horrela, guztira, populazioa 250.000 biztanle ingurukoa da.

Udalak, bere jarduera burutzeko, honako erakunde autonomo, enpresa eta fundazio hauek ditu –ikus hurrengo orrialdeko taula–:

a) Erakunde autonomoak (EA):

- Haur-eskolak
- Hirigintzako Gerentzia

b) Toki Enpresa Publikoak:

1. Euren sozietate-kapitalean udalak gehiengo parte-hartzea du:

- Comercios Minoristas de Pamplona, S.A. (Comiruña). Horretan, parte-hartzea ehuneko 100ekoa da.

- Asociación Navarra de Informática Municipal, S.A. (ANIMSA). Horretan, parte-hartzea ehuneko 70ekoa da.

- Mercados Centrales de Abastecimiento de Pamplona, S.A. (Mercairuña). Horretan, parte-hartzea ehuneko 51koa da.


2. Euren sozietate-kapitalean Udalak parte-hartze txikia duen toki enpresa publikoak:

- Oficina de Congresos de Pamplona Convention Bureau, S.A. Horretan, parte-hartzea ehuneko 30koa da.

c) Fundazioak:

- Iruñeko Erruki Etxea.
- Gaiarre antzokia.

Azkenik, adierazi beharra dago sua itzaltzeko zerbitzu publikoa Nafarroako Su-Itzaltze eta salbamenduko partzuergoak ematen duela, eta uraren ziklo osoaren eta hiri-hondakin solidoen tratamenduaren zerbitzuak Iruñerriko Mankomunitateak. 1999ko uztailaren azken egunetatik aitzina, berriz, hiri-garraio zerbitzua Iruñerrira zabaldu da mankomunitatearen bidez.



Udalaren eta haren erakunde autonomoen 1999ko zenbateko nagusiak –bateratu gabeak– laburbildurik agertzen dira jarraian:

	Betetako gastu-aurrek. (milioi pztan.)	Betetako dirusar-aurrek. (milioi pztan.)
Udala	20.484	19.723
Udal eskolak	569	597
Hirigintza Gerentzia	806	1109

Gainerako entitateen –parte-hartze handiko enpresen eta fundazioen– zenbateko nagusiak, berriz, honakoak dira:

Entitatea	Gastuak (milioitan)	Dirusarrerak (milioitan)
Comiruña	107	102
Animsa	483	457
Mercairuña	123	152
Erruki Etxea	1.748	1.816
Gaiarre Antzokia	229	239

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Toki Ogasunak eraentzeko arauari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzeko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta udalaren gastu eta dirusarrera aurrekontuen exekuzioa fiskalizatu ditugu. Gainerako udal administrazioari dagokionez, gure helburua da kanpo auditoretzako txostenak aztertzea eta horien ondorio eta datu ekonomiko nagusien laburpena egitea.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoek eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen

araudiak eta Nafarroako toki entitateei aplikatzea den gainontzeko araudiak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko iraileko 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da. Halere, 1999an araubide hori aplikatzea borondatezkoa zen, eta nahitaezko bilakatuko zen 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Iruñeko Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuen garapena eta exekuzioa.

b) 1999-12-31ko ondare-egoeraren agerpena, eskuarki onaturiko kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Udalaren eta haren menpeko erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioen legezotasun printzipioarekiko egokitasuna.

d) Nafarroako Kontuen Ganbarak 1998ko ekitaldiari buruzko bere azken fiskalizazio-txostenean egindako gomendioen betetze-maila.

e) Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomikoa 1999ko abenduaren 31n.

Iritzi hori osatzearen, udalaren erakunde autonomoen, enpresen zein fundazioen analisitik ateratako ondorio nagusiak azalduko dira.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Iruñeko Udalaren fiskalizazioa egin du, 1999ko ekitaldiari dagokiona.

Iruñeko Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarria dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorreko aplikazio bat.

Udalak aurkeztutako Kontu Orokorrak ekitaldian egindako jarduerak biltzen ditu. Ondokoak biltzen ditu funtsean, iruzkin eta ondorio orokorrez gain: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko eranskinak, hainbat ikuspuntutatik aztertuta –ekonomikoa, funtzionala, programak–, egoera-balantzea, magnitude nagusiak –aurrekontu-emaitez eta diruzaintzako gerakina– eta ekitaldi itxien egoera. Kontu Orokorrak orobat biltzen ditu EAei buruzko informazioa zein udalaren eta haren EAen arteko bateratze-egoera.

Udalaren gain eginiko lanak dirusarrera eta gastuen kontzeptu ekonomikoak eta abenduaren 31ko egoera-balantzea ikuskatu ditu, eta antola-

mendu, kontabilitate eta barne-kontrolari buruzko gaiak aztertu ditu.

Erakundeak eta gainontzeko entitateak direla eta, azaldu beharra dago badela kanpo auditoretza bat, lanbidedun independenteek egina, ondokoei buruzkoa:

Haur eskolak, Hirigintza Gerentzia, Animsa, Mercairuña, Iruñeko Erruki Etxea eta Comiruña.

Ez da jasota ageri Gaiarre Fundazioari buruzko kanpo auditoretza egin denik.

Entitate horiei dagokienez, gure lana eginiko auditoretzen azterketa egitera zuzendu da, ondorio eta datu ekonomiko nagusien laburpena edukitzea.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipioei eta arauari jarraituz eta egoeraren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu da lana.

Txostenak sei atal ditu, eta bertan biltzen dira, funtsean, Iruñeko Udalaren eta haren menpeko erakundeen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak. Atal horiek osatzeko, gehigarri bat jarri dugu, 1999ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruzkoa, bai eta bi eranskin ere, orduko organigramari buruzkoa bata eta txostenean erabilitako ratioen definizioari buruzkoa bestea.

Azterketa lana 2000ko ekaina, uztaila eta abuztua bitartean burutu zuen auditoretzako lau teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza dela eta.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Iruñeko Udalaren 1999ko ekitaldiko kontabilitateko egoera-orriak aztertu ditugu, udalaren ardurapean egin eta, laburbilduta, txosten honetako V. atalean biltzen baitira.

Gure azterlanean Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritza egiteko onetsiriko arau eta prozedurak erabili ditugu.

Eginiko ikuskapenetik abiatuz, honako iritzia honetara iritsi gara:

IV.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZ

Fiskalizatutako ekitaldian Udalak egin dituen eragiketak agertzen ditu, alderdirik esanguratsuenetan, 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak; halere, barne kontroleko sistema eskasa dela ikusten da, eta ekitaldiko itxiera-eragiketen ebakidura desegokia.

IV.2. ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Gaur egungo pentsio-ereduaren ondoriozko betebeharrak aktuarialak ez dira zenbatetsi, eta azken fasean dago inbentarioa eta kontabilitate-balioak berdinkatzea.

Udalaren 1999ko abenduaren 31ko balantzeak modu egokian agertzen du udalaren egoera ekonomiko-ondarezkoa, aurreko leroaldean adierazitakoak finantza-egoeretan izan lezakeen eragina alde batera utzita.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Iruñeko Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz burutzen da, txostenean azaltzen diren salbuespenak gorabehera.

IV.4. KONTUEN GANBARAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

1998ko ekitaldiko txostena 1999ko urrian eman zen argitara eta, hortaz, udalak ez du astirik izan ganbararen aholkuak 1999ko ekitaldian betetzeko, eta txosten hau ekitaldi horri buruzkoa da.

Oro har, esan daiteke, aurreko ekitaldian legez, 1996ko ekitaldiari buruzko txosteneko gomendioetako asko, administrazio- eta kontabilitate-izaerakoak, kontuan hartu direla; nabarmen-tzeko modukoak dira, bereziki, aurrekontu-koordinazioari esker, espedienteak tramitatzeko faseetan kontu-hartzaitzak gehiago esku hartze-ari esker eta kostuen sistemari zein adierazle ez finantzarioei buruzko azterlanak egiten hasi izanari esker lortutako emaitzak.

Halere, bete gabe geratzen dira udal-alarretako kudeaketaren koordinazioa hobetzeari buruzko gomendioak, bai eta barne kontroleko, eragiketen ebakidurako eta aurrekontua egiteko sistemetan abiatutako aldaketa prozesuak burutzeari buruzkoak ere.

IV.5. ERAKUNDE AUTONOMOAK, ENPRESAK ETA FUNDAZIOAK

Udalaren erakunde autonomoek, hots, Hirigintza Gerentziak eta Haur Eskolek, kanpo auditoretza aurkeztu dute, eta horretan aldeko iritzia azaltzen da, salbuespenak salbuespen. Hona salbuespenak: Gerentziaren kasuan, urbanizazio-gastu ueste baino handiagoek sor ditzaketen gorabeherak, eta Haur Eskolen kasuan, berriz, atxiki gabeko ondasunetan egindako aldaketa batzuk aktibotzat hartu izana.

Kapitalaren zatirik handiena Udalarena duten enpresek –Comiruña, Animsa eta Mercairuña– aldeko iritzia azaltzen duen auditoretza-txostena aurkeztu dute.

Fundazioak direla-eta, aldeko iritzia azaltzen duen auditoretza-txostena aurkeztu du Erruki Etxeak, baina Gaiarre Antzokiak ez du kanpo txostenik aurkeztu.

Hirigintza Gerentziari dagokionez, hirigintza-poligonoetako kostuen kontuak berrikusi eta gaurkoatzen ari dira, eta horri esker erregularizatu ahalko dira gerentziaren eta udalaren arteko kontabilitate-saldoak.

IV.6. EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 1999KO ABENDUAREN 31N

Ondokoa da Iruñeko Udalaren eta haren EAen 1999-12-31ko egoera: 7.964 milioiko diruzaintzako gerakin positibo nabarmena –horietatik 4.920 inbertsioak finantzatzeko xedemanak–, epe luzean ordaindu beharreko 7.079 milioiko zorra, % 7ko zorpetze-maila eta % 12ko aurrezki garbiko portzentajea.

Datu horiek erakusten dutenez, Udalaren finantza-egoerak ona jarraitzen du izaten 1998ko txostenarekin alderatuz gero. Aurrezki garbiak eta zorpetze-mailak ehuneko 2 egin dute okerrera, hain zuzen ere maileguen amortizazio aurreratua- ren bidez epe luzeko zorra 1.135 milioi gutxitu delako; horri esker, etorkizunean txikiagoa izanen da finantza zama.

Ekitaldi honetan bete eta hobetu egin dira Bideragarritasun Finantzarioari buruzko Planeko aurreikuspenak, eta horrela, finantza zama eta funtzionamendu gastuak dirusarrera arrunten bidez finantzatu dira eta inbertsioak finantzatzeko 2.146 milioiko gerakina dago. Tributu bidezko dirusarreraren maila onari esker Mendillorri Iruñean sartzeak ekarri duen gastu arruntaren gehikuntza eta zerbitzu berriak –etxez etxeko laguntza zerbitzua eta aparkalekuak arautzeko ordenantza- ren aplikazioak sotutakoak– finantzatu ahal izan dira.

Bestalde, hiriburutzari buruzko legearen bidez 2.020 milioi jaso dira, eta transferentzia arrunten fondoaren bidez, berriz, 5.462. Kobrantzen kudeaketaren maila aparta da. Hori dena batuz gero, eta 1998ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerkina aplikatuta, inbertsioak finantzatu ahal izan dira, zorpetzera jo gabe eta finantza egoera onari eutsiz.

Halere, gastua aurreikusi bai baina egin egiten ez den epean alferreko finantza baliabideak mantentzea dakar ekitaldi bateko kapital gastuak hurrengo ekitaldiari egozteak (1999ko 2.784 milioiko kredituak egotzi zaizkio 2000ko aurrekontuari).

Azkenik, amaiera eman behar zaio Hirigintza Gerentziak kudeatzen dituen hirigintza-poligonoen behin betiko likidazioa ez egiteak finantza arloan sortu duen zalantza egoerari. Likidazioak eragin ekonomiko zehaztugabeko gorabeherak eragin litzake udal fondoetan.

Laburbilduz, ondorio nagusi gisa, hauxe esan dezakegu:

- Ikuspuntu administratibotik begiratuta, udalak modu egokian kudeatzen du aurrekontua, baina beharrezkoa du:

a) Udaleko kudeatzaile lanpostua sortzeko aukera aztertzea; alorren funtzionamendua zuzendu, arautu eta koordinatuko litzuke.

Koordinazio horri esker, besteak beste, udal kudeaketa benetan hobetu ahalko da, eta ekidin eginen da ondoko ekitaldiei kreditu-gerakineko zenbateko nabarmenak egotzi behar izatea.

b) Aurrekontu-eredua aldatzeko prozesuarekin aurrera jarraitzea, jarduera adierazleak eta helburuak sartuz eta kudeaketan lortutako eraginkortasun eta ekonomia maila neurtu eta aztertzekeko prozedurak ezarri.

c) Kontabilitate-kudeaketaren eredua 1999tik aitzina indarra duen foru legediari egokitzeko prozesuaren barruan, eredu hori gaurkotu eta hobetzea, kudeaketarako tresna erabilgarri bat lortzearen, batez ere halako arloetan: inbertsioen jarraipena, bateratzea, zerga-eskakizunak eta kontsultak.

d) Sektore publikoaren kontabilitateko plan orokorrak ezarritako Urteko Txostena hobetzea eta egiten jarraitzea, Kontu Orokorreko beste finantza-orri bat den aldetik.

e) Legezketasunari estu-estu lotzea, batez ere administrazio-kontratazioaren alorrean. Horretarako, egokia izanzen litzateke esatandarizatu eta normalizatzea hala kontratazio espedienteko hainbat agiri –esaterako klausula administratiboen pleguak eta txosten juridikoak– nola jarduketa fiskalizatzailea zein aholkularitza juridikokoa. Jarduketa horiek, berriz, administrazio-tramitazioa azkartzea ekarriko lukete.

f) Kontu-hartzailletza funtzioko ekitaldia osatzea, osatu gabe geratu diren alorretan –langileak, dirusarrerak, erakunde autonomoak eta enpresa publikoak–, eta barne auditoretzako unitatea den aldetik “a posteriori” eginiko jarduketa indartzea.

Halakoxeak dira txosten honetan bildutako gomendioak, eta udala horietako asko ezartzen ari da.

- Finantza-egoerari dagokionez, Bideragarritasun Finantziarioari buruzko Planak ezarritako aurrekontuaren aldetik zorrotz jokatu beharri eustea, batik bat kontuan hartuz zorpetze-gaitasuna, maileguak ordaintzean gabezialdien bukaera eta baliabide jakin batzuen behin-behinekotasuna.

- Erakunde autonomoei dagokienez, Udalak koordinazioa, parte-hartzea eta gidaritza sustatzea.

- Foru Komunitatearen esparruaren baitan, Udal Montepioari behin betiko irtenbidea bilatzea.

Hori guztia Udalaren Plan Estrategikoan sartuko litzateke. Plan horrek, alde batetik, diseinatu egin beharko luke, hirigintza-planeamenduari bat etorri, hiri-eredua –hala lurraldearen nola azpiegituren eta bizi-kalitatearen aldetik–, lortu beharreko helburuak ezarri eta aurreikusitako jarduketak zein horien finantziarioa zehaztuz. Beste alde batetik, eta hori barne-afera da, zerbitzu publikoak emateko eredu baten definizioa –baliabideen banaketa koherente batean oinarritua.

V. 1999KO FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK

Atal hau finantza-egoerako orri hauek osatzen dute:

V.1. IRUÑEKO UDALA

V.1.1. Aurrekontuaren betetze-maila. 1999ko ekitaldia

Dirusarreraren kapituluak	Hasierako aurreikusp.	Behin-betiko aurreikusp.	Aitortuta	Aitor-tzeke	Betetze maila %
Zuzeneko zergak	4.892,3	4.892,3	5.477	-584,7	112
Zeharkako zergak	654	654	594	60	91
Tasak eta bestelako dirusarrerak	2.186,2	2.186,2	2.725,3	-539,1	125
Transferentzia arruntak	9.175	9.232,9	9.445,3	-212,4	102
Ondare dirusarrerak	140,9	140,9	255,2	-114,3	181
Inbertsio errealak saltzea	706,3	706,3	309,7	396,6	44
Kapital transferentziak	665,2	1.347	718,1	628,9	53
Finantza-aktiboak	216	4.688,4	198,7	17,4 ⁽¹⁾	92 ⁽¹⁾
Finantza-pasiboak	2.055,1	1.381	0	1.381	0
Dirusarrerak, guztira	20.691	25.229	19.723,3	1.033,4	95⁽²⁾

(1) Diruzaintzako gerakinak (horren aurreikuspenak 8. kapitulan ematen baitira) ez du eskubide aitorturik sortzen erabili izan den ekitaldian. Hortaz, kendu egin dira aitortzeke dagoenetik 4.472,3 milioi (2.345,3 milioi gerakinen gehikuntza finantzazteko, 659,2 milioi kredituak aldeztetik kitatzeko eta 1.467,8 milioi inbertsio berriak finantzazteko). Horien bidez 1999an inbertsioak finantzatzeko aurreikusita zegoen mailegua ordeztu zen neurri batean.. Betetze-portzentajea kapituluaren gainontze-koetarako kalkulatu da.

(2) Guztizko portzentajearen kalkuluan ez dira sartzen erabilitako diruzaintzako gerakinari buruzko zenbatekoak.

(Pezetak, milioitan)

Gastuen kapituluak	Hasierako kreditua	Behin-betiko kreditua	Aitortuta	Egi-teke	Betetze maila %
Langileen ordainsariak	8.046,2	8.246,2	8.027	219,2	97
Ondasun arruntak eta zerb. erostea	6.045,1	6.044,8	5.528,1	516,7	91
Korrituak	398,2	398,2	219,6	178,6	55
Transferentzia arruntak	1.662,5	1.612	1.440,2	171,8	89
Inbertsio errealak	3.298,5	6.910,8	3.376,5	3.534,3	49
Kapital transferentziak	349	664,2	560	104,2	84
Finantza-aktiboan aldaketa	215	217	197	20	91
Finantza-pasiboan aldaketa	476,5	1.135,8	1.135,7	0,1	100
Gastuak, guztira	20.691	25.229	20.484,1	4.744,9	81

V.1.2. 1999-12-31ko egoera balantzea

AKTIBOA (pezetak, milioitan)

Izena	1998	1999
IBILGETU MATERIALA	29.296	33.680
Lurrak eta ondasun naturalak	9.144	10.291
Etxeak eta bestelako eraikinak	11.974	12.637
Makinak eta instalazioak	2.704	3.099
Garraio elementuak	286	305
Altzariak	32	38
Informazio-prozesuetarako ekipoa	243	258
Bestelako ibilgetu materiala	3.625	4.047
Inbentariatu gabeko ibilgetua	1.288	3.005
IBILGETU EZ-MATERIALA	0	4
Ibilgetu ez-materiala	0	4
INBERTSIOAK AZPIEGITURA ETA ERABILERA OROKORRERAKO ONDASUNETAN	777	809
Ondare historikoa	777	809
ALOR PUBLIKOKO INBERSIO FINANTZARIOAK	1.466	1.465
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	1.466	1.465
Eraturiko fidantzak ta gordailuak		
ZORDUNAK	2.684	2.540
Ohiko aurrekontuko zordunak	1.377	1.422
Aurreko ekitaldietako aurrekontuetako zordunak	1.275	1.087
Urbanizazio-kuoten zordunak	1	1
Bestelako zordunak	31	30
KONTU FINANTZARIOAK	6.606	5.161
Kutxa	3	2
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	1	2
Bankuak eta kreditu-erakundeak	6.580	5.147
Justifikatu beharreko zordunak	10	10
Banaketa kontua	12	0
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	366	121
Aplikatzeko dauden kontusailak	366	121
AKTIBOA, GUZTIRA	41.195	43.780

PASIBOA (pezetak, milioitan)

Izena	1998	1999
ONDAREA ETA ERRESERBAK	20.817	26.271
Ondarea	17.408	18.796
Erabilera orokorreko ondarea		
Aurreko ekitaldietako emaitzak	3.409	7.475
KAPITAL DIRULAGUNTZAK	3.161	3.171
Kapital dirulaguntzak	3.161	3.171
EPE ERTAIN ETA LUZEKO ZORRAK	8.214	7.079
Alor publikoko maileguak	2.227	2.204
Entitate pribatuen maileguak	5.987	4.875
EPE LABURREKO ZORRAK	4.091	3.109
Aitorturiko betebeharren hartzekodunak. Indarreko aurrekontua	2.662	2.034
Aurreko urteetako hartzekodunak	100	98
Bestelako hartzekodunak	12	10
Ente publikoak	731	392
Epe laburrean jasotako fidantza eta gordailuak	586	575
EKITALDIKO EMAITZAK	4.066	3.342
Ekitaldiko emaitzak	4.066	3.342
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	846	808
Formalizatu gabe dauden dirusarrerak	66	28
Urbanizazio-kuoten dirusarrerak	768	768
Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	12	12
PASIBOA, GUZTIRA	41.195	43.780

V.1.3. 1999-12-31ko diruzaintzako gerakinaren egoera

Zenbatekoak (pezetak, milioitan)

Kontzeptua	Saldoa
1. (+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak	2.186
Dirusarreren aurrekontukoa. Indarreko aurrekontua. Ken kobratzeko zailak diren saldoak	1.307
Dirusarreren aurrekontukoa. Itxitako aurrekontuak. Ken kobratzeko zailak diren saldoak	774
Merkataritza eragiketetakoa	-
Bestelako ente publikoetako baliabidetakoak	-
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoa	105
2. (-) Ekitaldi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	-3.100
Gastu aurrekontukoak. Indarreko aurrekontua	-1.967
Gastu aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	-98
Dirusarreren aurrekontukoa	-5
Merkataritza eragiketetakoa	-
Bestelako ente publikoetako baliabidetakoak	-458
Bestelako ente publikoetako baliabidetakoak	-
Gordailuak eta fidantzak	-406
Formalizatzeke dauden dirusarrerak	-28
Urbanizazio kuotetako dirusarrerak	-105
3. (+) Diruzaintzako fondo likidoak 99.12.31n	5.149
4. Finantziario atxikiko gastuei atxikitako diruzaintzako gerakina	738
5. Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiena	511
6. Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina (1-2+3-4-5)	2.986
Diruzaintza gerakina, guztira (1-2+3) ó (4+5+6)	4.235

V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

V.2.1. Hirigintza Gerentzia. Aurrekontuaren betetze-maila. 1999ko ekitaldia

(pezetak, milioitan)

Dirusarreraren kapituluak	Hasirako aurrekontua	Behin-betiko aurrekontua	Aitortuta	Aitortzeke	Betetze maila %
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	0,6	0,6	0,5	0,1	80
4. Transferentzia arruntak	251,6	225,7	225,7	0	100
5. Ondare dirusarrerak	10	10	98,2	-88,2	983
7. Kapital transferentziak	2.552	4.103	784,3	3.318,7	19
8. Finantza-aktiboak	0	1.371,5	0	0 ⁽¹⁾	(1)
Dirusarrerak, guztira	2.814,2	5.710,8	1.108,7	3.230,6	26

(pezetak, milioitan)

Gastuen kapituluak	Hasierako kreditua	Behin-betiko kreditua	Egina	Egiteke	Betetze maila %
1. Langileen ordainsariak	145,6	145,6	130,3	15,3	90
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	93,6	138,9	66,3	72,6	48
3. Korrituak	0,5	0,5	0	0,5	0
6. Inbertsio errealak	2.388,5	4.857,1	576,6	4.280,5	12
7. Kapital transferentziak	186	568,7	32,5	536,2	6
Gastuak, guztira	2.814,2	5.710,8 ⁽¹⁾	805,7	4.905,1 ⁽¹⁾	14

(1) Gerakinen gehikutzako 2.763,9 milioi pezeta barne; horetatik 45,2 milioi bigarren kapituluak dira, 2.468,7 6. kapituluak eta 250 7. kapituluak.

V.2.2. Haur Eskolak. Aurrekontuaren betetze-maila. 1999ko ekitaldia

(pezetak, milioitan)

Dirusarreraren kapituluak	Hasirako aurrekontua	Behin-betiko aurrekontua	Aitortuta	Aitortzeke	Betetze maila %
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	120,1	120,1	140,7	-20,6	117,12
4. Transferentzia arruntak	439,5	472,7	443,8	28,9	93,88
7. Kapital transferentziak	6	12,8	12,8	0	100
Dirusarrerak, guztira	565,6	605,6 ⁽¹⁾	597,3	8,3	98,62

(pezetak, milioitan)

Gastuen kapituluak	Hasierako kreditua	Behin-betiko kreditua	Egina	Egiteke	Betetze maila %
1. Langileen ordainsariak	479,5	491,2	462	29,2	94,05
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	78,2	99,6	82	17,6	82,35
4. Transferentzia arruntak	1,9	2,1	0,7	1,4	35,15
6. Inbertsio errealak	6	25,4	24,3	1,1	95,62
Gastuak, guztira	565,6	618,3 ⁽¹⁾	569	49,3 ⁽¹⁾	92,03

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK

Ondoren aurkeztuko ditugu Udalaren antolamendua eta barne kontrol sistema hobetu eta osatzeko egokitzat jo ditugun gomendioak, bai eta iruzkin eta ondorio orokorrak ere.

Zehaztu egin beharra dago 1998ko abenduaren 31n bukatu zen ekitaldiko kontuei buruzko aurreko txostena 1999ko urrian eman zela argitara, hots, txosten honen xede den ekitaldia ia-ia bukatuta zegoenean, eta hortaz, udaleko arduradunek ez dute astirik izan 1999ko abenduaren 31 baino lehenago gomendioak betetzeko.

Halere, adierazi egin behar da udalaren kudeaketa eta kontabilitate alorretan bilakaera positiboa antzematen dela; bilakaera hori, jakina, nabarmenagoa izanen da 2000ko ekitaldia bukatutakoan.

VI.1. ANTOLAMENDU OROKORRA

Alorren arteko koordinazioa falta da jardutera-koan, eta horrek disfuntzioak, atzerapenak eta udal kudeaketaren bateratasunik eza dakartza, nahiz eta aurrekontu-kudeaketa hobetu egin dela ikusi. Horrenbestez, hauxe gomendatzen dugu:

- *Koordinaziorako gerentzia-tresnak ezartzea, ondokoei buruzkoak:*

a) *Prozedura Eskuliburu*etako prozedura, edukia eta azterketa bateratzeko jarraibideak.

b) *Arloen jarduketak* justifikatzeko txostenen edukia eta horien periodikotasuna.

c) *Administrazio-espeditenteen kudeaketa*, edukia zein dokumentazioa, eta horien jarraipena.

d) *"A posteriori"* egindako jarduketei buruzko barne kontrolerako tresnen aplikazioa, bai eta barne auditoretzakoena ere, bukatzea.

e) *Udalaren zerbitzu juridikoen jarduketa*, aholkularitza txostenak eta azterlanak egiteko irizpideetan bat etortzeko premia denaz bezainbatean. Hartara, zerbitzu juridiko zentralizatu bat sortzearen egokitasuna aztertu beharko litzateke.

f) *Erakunde autonomoen eta enpresa publikoen funtzionamendua*, horretarako, adibidez, kontratu-programak erabiliz, non beharrezkoa den finantziarioa eta erdietsi beharreko helburuak ezarriko baitira.

- *Iruñeko Udalak* aztertu beharko luke gerente bat izendatzeko aukera, udal zerbitzuak eta alorrak antolatzeko eta zuzentzeko arduradun izateko.

VI.2. KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

Prozesu horiek hobetzeko joera etengabea igartzen da azken ekitaldian, baina badira, halere, hobetu beharreko hainbat alderdi. Hona:

VI.2.1. Kontabilitatea

- *Ekitaldia* ixteari buruzko kontabilitate-printzipioak estu aplikatzea, batez ere epe laburrerako zorretan. *Hori dela-eta, kontabilitatearen eta alorren arteko prozedurak diseinatu behar dira, ekitaldia bukatzen denean eragiketen aurrekontu-erregistro egokia beramatzearen.*

- *Kontabilitate-zerbitzuek zuzenean egindako idazpenak behar bezala dokumentatzea.*

- *Kontuetako saldo ez adierazgarriak erregularrizatzeari ekitea, batez ere "aplikatzeke dauden kontusaileri" buruzkoak.*

Une honetan, kontabilitate-kudeaketako aplikazio informatiko berri bat ezartzeko asmoa dago; gure ustez, ondokoak dira aintzat hartu beharreko alderdi funtsezkoenak:

- *Kudeaketako tresna informatiko nagusien integrazioa ahalbidetzea (langileak, dirusarrerak, inbentarioa...).*

- *Trasferentziak eta inbertsio proiektuak kontrolatzeko modulu berezi bat ezartzeko aukera aztertzea, gaur egungo mugak ikusita.*

- *Urteko Txostena* egitea, *Sektore Publikoaren Kontabilitate Plan Orokorra* hala ezartzen baitu.

- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontabilitate-informazioa sendotzeko bidea ematen duten prozedurak ezartzea.*

- *Zerga-eskakizunak aintzat hartzea, batez ere BEZaren kudeaketatik sortutakoak.*

- *"Kontsulta-tresnak"* bultzatzea aplikazio informatikoaren baitan, kudeatzaileak berak eta udal kontu-hartzaileak kudeaketaren kontrola eta jarraipena egitea errazten baitute.

- *Kostuen sistema erraztu bat diseinatzeko prozedurak erraztea. Sistema horrek gastu orokorrak zein administraziokoak jardueren artean banatzeko balioko luke, bai eta tasa eta prezio publikoetan ezarri beharreko tarifak kuantifikatzeko ere.*

VI.2.2. Aurrekontua

Hauexek dira, oro har, gure gomendioak:

- *Aurrekontuko zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealekara doitu edo/eta hurbiltzea, kreditu-*

gerakinetako kitapenak hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara ez gehitzearren.

- *Aurrekontua betetzeko behar bezalako planifikazioa egitea, ahal den neurrian ekiditeko kudeaketa ekitaldiaren azken hilabeteetan metatzea.*

Programaz programako aurrekontuei buruzko azken txostenetan emandako gomendio eta ondorioek indarrean dira. Ondokoak dira programaz programako aurrekontuen ezaugarriak:

- Helburuak eta adierazleak –batzutan egon ere ez daude– desegokiro definitu, kuantifikatu eta neurtzea.

- Horien betetzeari buruzko jarraipen zehatzik ez egitea.

- Programen kopuru neurrigabea.

- Homogeneotasun eza kudeaketa alorretako programen osaketan eta definizioan.

Azken buruan, aurrekontua programaka aurkezten da, neurri batean teknika honen filosofiari jarraikiz, zeren udal zerbitzuen kostuen zein baliabideen xedeari buruzko hobekuntza nabarmena baitakar. Halere, alderdi oso esanguratsuak falta dira, bereziki adierazle eta helburuei buruzkoak, eta horrek ezinezkoa egiten du baliabideak erabiltzerakoan lortutako eraginkortasun eta ekonomia maila aztertzea.

- *Gure ustez, bultzatu egin behar da aurrekontua hobeto egiteko prozesua. Horretarako, oinarritzat hartu behar dira zenbait kudeaketa-helburu eta -adierazle, zeinek ahalbidetuko duten udal alorrek baliabide publikoak erabiltzerakoan duten ekonomia eta eraginkortasun maila aztertzea. Eta hori guztia udal kudeaketaren planifikazio ekonomikoan kokatu behar da.*

VI.3. KONTU-HARTZAILTZETA ETA BARNE KONTROLA

- Kontu-hartzaitzaren funtzionamenduaren hobekuntza orokor hori gorabehera, zehaztu egin behar litzateke behin betikoz zein den bere lana ondokoak direla-eta: langileak, dirusarrerak, erakunde autonomoak eta toki-enpresa publikoak eta “a posteriori” fiskalizazioa, hala fiskalizazio mugatuko gastuetarako nola aitortutako eskubideetarako.

Lehendabiziko bi alorrei dagokienez, alde zuzeneko jarduketak hasiak dira, baina gauzatzeko dago langileei dagokiena, zeina kudeaketako aplikazio informatiko berriarekin batera egiten baita, eta dirusarreraren kasuan ikusteke dago zein izan den horren definizio zehatza.

Erakunde autonomei dagokienez, argitzeke dago zein den gerentziaren kontabilitate-egoera poligonoetan egindako obren kitapenez denaz bezainbatean. Enpresen kasuan, berriz, egiten den gauza bakarra da auditoretzako txostenak jasotzea.

Azkenik, “a posteriori” funtzioa ez da gauzatzeko egiten den alde zuzeneko gastu-fiskalizazioa uen legeria indardunean ezarritako fiskalizazio mugatua baino askoz zabalagoa baita.

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Alorren arteko koordinazioa hobetzea, espedienteetan sartu beharreko dokumentazioaren edukia eta kalitateari dagokienez. Horretarako beharrezkoak dira: alorretako arduradunekin alde zuzeneko lankidetzak eta informazio-lana egitea, Udalaren aholkularitza juridikoak eskutzean kontratazio-espedienteetan sartu beharreko txostenen eta agirien normalizazioan eta jarraibide zehatzak prestatzea. Horrek kontu-hartzaitzaren lana erraztuko du*

- *Fase ezberdinetan aplikatutako fiskalizazio-prozeduren normalizazio eta homogeneizazio prozesua bukatzea, tresna informatikoak ahal den neurrian erabiltzen saiatuz.*

- *Fiskalizazio-jarduketa aplikatzea falta diren kudeaketa alorretan.*

- *“A posteriori” egin beharreko lana bultzatzea, hala fiskalizaziokoa nola prozedurak aztertzeko eta hobekuntzak ezartzeko.*

- *Barne auditoretza- eta fiskalizazio-prozesu osoa sartzeko Udal Kontu-hartzaitzak egin behar diren jarduketak eta prozedurak bildu eta batera dituen erregelamendu batean.*

VI.4. LANGILEAK

VI.4.1. Alderdi orokorrak

Langileen gastuak, 1999an, 8.027 milioioak izan dira –ekitaldiko gastuen ehuneko 39, aurreko ekitaldian baino ehuneko 5,9 gehiago–. Hauxe da aurrekontuko artikuluen araberrako banaketa:

	(milioi pezetatan)
Aitortutako obligazioak	
Goi karguak	73
Kabineteko behin-behineko langileak	171
Funtzionarioak	4.775
Lan kontratatudunak	297
Prestazioak eta gizarte gastuak	2.711
Guztira	8.027

Plantilla organikoak –1998ko azaroaren 17an egindako osoko bilkuran onetsi zen– 1.519 lanpostu biltzen ditu, 1998an baino 114 gehiago. Igoera hori gertatu da ondoko lanpostu hutsak sortu direlako: D mailako 35 profesional-ofizial Obra eta Azpiegituren Alorrean eta Alde Zaharraren Alorrean, D mailako 30 udaltzain, E mailako zerbitzu anitzetako 7 peoi Osasun Alorrean eta B mailako erdi mailako 5 teknikari, C mailako 4 hezitzaile, eskola tailerreko 4 monitore laguntzaile eta 3 familia langile –denak D mailakoak– Gizarte Zerbitzuen Alorrean.

Ondokoa da 1999ko ekitaldiko plantilla organiko 1.519 lanpostuen mailaz mailako banaketa:

Maila	Kopurua	%
A	95	6
B	200	13
C	176	12
D	840	55
E	181	12
Atxiki gabe	27	2
Guztira	1.519	100

Ondoko taulan, 1998ko eta 1999ko abenduaren 31n udalean alta emanda zeuden pertsonak konparatzen dira:

Harreman mota	1999	1998
Funtzionarioa –montepioa–	606	623
Funtzionarioa –Gizarte Segurantzaz–	441	423
Lan-kontratadun finkoa	14	2
Lan-kontratadun aldizkakoak	2	13
Alkatea eta zinegotziak	4	6
Aldi baterakoak	530	374
Guztira	1.597	1.441

1999ko abenduaren 31n 1998an baino 156 pertsona gehiago dago, batez ere 85 ikasle kontratatu delako eskola tailerrerako (1998an ere kontratatu ziren ikasleak eskola tailerrerako, baina abendurako bukatua zuten kontratua) eta udaltzain izateko 19 izangai prestatzen ari dira.

Aldi baterako lan-kontratadunek langileen ehuneko 33 egiten dute 1999ko abenduaren 31n. Aldi baterako 530 lan-kontratadunetatik 91 gizarte-enplegu babestuari atxiki zaizkio, eta 97 eskola tailerrarekin zerikusia duten langileak dira (85 ikasle eta 12 monitore).

Lan-kontratadun finkoen kopuruak gora egin du, aldizkako 11 langile finko zerbitzu anitzetako peoi izatera pasa baitira.

1999ko lan eskaintza publikoan plantillako 410 lanpostu hutsetatik 243 eskaini dira.

1999ko plantillan hutsik agertu arren 1998an eskaini ziren lanpostuak ez dira agertzen, eta ez dira agertzen ezta ere futzionarioentzako deialdi murriztu bidez beteko direnak. Horri zor zaio lanpostu hutsen eta lan eskaintza publikoaren artean dagoen aldea.

Hona zertan diren 2000ko maiatzean 1999ko lan eskaintza publikoko lanpostuak: 47 lanposturako deialdia egin da; horietatik, 20 bete eta 27 tramitatzen ari dira. Hortaz, 196 lanposturako deialdia egin gabe dago; izan ere, lan eskaintza 243 lanpostukoa izan zen.

Deitu gabeko lanpostuak bitarteko gisa betetzen dituzte funtzionarioek zein aldi baterako lan-kontratadunek.

Ikus daitekeenez, 1999ko ekitaldian deitutako lanpostuen kopurua ez dator bat lan eskaintza publikoan sartutakoekin. Hori dela-eta, langileen batzordeak, 1999ko plantilla organikoari buruz eginiko txostenean, "lan eskaintza publikoa benetan egin eta abaiaraztea" eskatzea erabaki zuen, horrela "bitarteko gisa betetako lanpostu kopuru handia" ekidinen bailitzateke.

Goi karguen ordainsariei dagokienez, aurreko ekitaldiko egoera bera mantentzen da, hau da, Udalak salbuetsizat jotzen du ordaindutako ordainsarien ehuneko 30.

- Udal montepioa

Hona 1999ko datuak:

Kontzeptua	Kopurua	Zenbatekoa	(pezetak, milioitan)
			Batez besteko zenbatekoa
Jubilazioa	464	1.262	2,7
Alarguntza	265	456	1,7
Zurztasuna	119	146	1,2
Guztira	848	1.864	2,2

Zenbatzeke daude udal montepioak etorkizunean sortuko dituen konpromezuak.

VI.4.2. Langileen kudeaketa

Egin dugun lanaren laburpen gisa, zera esan dezakegu: langileen gastuak ondo kontabilizatuta daude oro har, eta bat datoz Udalaren zerbitzuko langileek sortutako ordainsariekin.

Halere, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Une bakoitzean aplikatutako prozedurak modu integratu eta koherente batez biltzen duen eskuliburu bat prestatzea, alorreko prozedimen - duen egungo deskripzioa formalizatzearen.*

- *Lan Eskaintza Publiko arrazoizkoa egitea kudeaketaz denaz bezainbatean, dauden baliabi - deak aintzat hartuz, edo bestela, horiek sendo - tzea, aurreikusitakoa betetzearen.*

- *Udal Kontu-hartzaitzaren beharrianak bil - tzea aplikazio informatiko berrian, fiskalizazio-lana egin dezan, langileen alorrean aplikatu beharreko prozedurak aldeztu aurretik definituz.*

- *Ondareko erantzukizun zibileko aseguru poli - za orokorrak Udalaren beharrian guztiak har ditzan saiatzeko, poliza osagarriak egin behar ez izateko.*

- *Beken gastuak behar bezala erregistratzea, hots, transferentzia arrunt gisa.*

- *Langileen espedienteak osatzea, haiek uki - tzen dituzten ekintza guztiak bil ditzaten.*

- *Goi karguen ordainsariak direla-eta ezarrita - ko ehuneko 80ko salbuespena mantentzea egokia den aztertzea eta beste bide bat erabiltzea kar - guari dagozkion gastuak ordaintzeko.*

VI.5. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBI - TZUAK EROSTEA

Aitortutako obligazioek 5.528 milioi egiten dute, hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 20 gehiago.

Gastuen kapitulu honek gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 27 egiten du. Kapituluako gas - tuek ehuneko 78 egiten dute.

Behin betiko aurrekontua 6.045 milioi pezeta - koa zen, eta aurrekontuaren betetze maila, horrenbestez, ehuneko 91koa.

Ekitaldian gastatu gabe geratu dira aurrekontu - kredituetako 517 milioi.

Ondoren azaltzen da, aurreko urtearekiko alderaketa eginez, artikuluen eta kontzeptuen ara - bera kapitulu honetako betetzea zein izan den:

Kontzeptua	Egina 1998	Egina 1999	Aldaketa % 99/98
Lursail eta ondasun naturalen errentamendua	0	0	
Eraikinen errentamendua	34.181.937	33.534.123	-2
Makinen errentamendua	28.641.805	14.841.028	-48
Garraio materialen errentamendua	201.850	194.329	-4
Prozesu informatikoetako ekipoen errentamendua	0		
Gainontzeko ibilgetuen errentamendua		353.800	
Errentamenduak	63.025.592	48.923.280	-22
Azpiegitura konpontzea	84.436.131	23.831.898	-72
Instalazio teknikoak mantentzea		88.736.038	
Eraikinak mantentzea	56.922.043	488.127.179	758
Makinak mantendu eta konpontzea	35.400.736	11.524.024	-67
Garraio materiala mantendu eta konpontzea	29.312.059	37.254.235	27
Altzariak mantentzea	16.157.995	17.400.917	8
Prozesu informatikoetako ekipoak mantentzea	35.064.536	39.855.687	14
Erabilia publikoko ondasunak mantentzea		92.092.300	
Gainontzeko ibilgetu materiala mantentzea	78.647	300.804.261	382374
Konponketa, mantentze eta kontserbazioa	257.372.147	1.099.626.539	327
Bulegoko materiala	43.705.142	51.255.930	17
Hornidura (ura, argia, erregaia)	810.683.639	859.993.630	6
Komunikazioak	87.260.216	117.038.493	34
Garraioak	13.337.323	20.918.101	57
Aseguru primak (ibilgailuak eta higiezinak)	40.336.093	41.697.447	3
Tributuak	14.003.123	13.292.783	-5
Hainbat gastu (protokoloa, publizitatea)	325.164.627	650.291.973	100
Kontratuak (garbiketa, laguntza teknikoa)	2.930.415.466	2.511.522.235	-14
Materiala, zuzkidurak eta beste	4.264.905.629	4.266.010.592	0,03
Dietak	7.097.606	7.938.806	12
Lokomozioa		8.110.804	
Bestelako kalteordainak	5.275.476	9.197.297	74
Kalteordainak zerbituz dela-eta	12.373.082	25.246.907	104
Edizio eta banaketa gastuak		88.283.255	
Argitalpen gastuak		88.283.255	
2. kapitulua, guztira	4.597.676.450	5.528.090.573	20
Gastuen ehunekoa, guztira	27	27	
Gastuak, guztira	17.202.524.675	20.484.075.231	19

Aurreko ekitaldiko betetze mailarekin alderatuta, hauxe ikusten da: errentamenduek behera egin dute –ehuneko 22–, eta, aldiz, konpondu, mantendu eta kontserbatzeko lanek eta, zerbitzua dela-eta emandako kalteordainek, gora –ehuneko 327 eta ehuneko 104 hurrenez hurren.

Alegia, aurreko ekitalditik hona aldaketa nabarmenak gertatu dira. Horien eraginez, kapituluko gastuak ehuneko 20 egin du gora, hain zuzen ere zerbitzu berriak abiarazi direlako –aparkatze mugatua arautzeko zerbitzuak 355 milioiko gastua izan du eta etxeko laguntza zerbitzuak 113 milioi-koa– eta urte bukaeran Mendillorri Iruñean sartu delako.

Egin dugun azterketa egiteko ondoko lagina baliatu dugu, zeinak kapitulu osoaren ehuneko 30 egiten baitu:

Kontzeptua	1999n egina (pezetatan)	Guztiaren gaineko %
Kaleak garbitzea	710.079.366	12,8
Aparkatze mugatuko zerbitzua	355.311.131	6,4
Etxeko laguntza zerbitzua	113.194.386	2,0
Hainbat gastu	77.505.185	1,4
Kontratatutako kultura programak	118.511.435	2,1
Aplikazio informatikoak mantentzea	277.829.108	5,0
Lagina, guztira	1.652.430.611	29,9

Egindako azterketatik ondozioztatzen da ezen, oro har, bat datozela organo eskudunak onetsitako kontratuak eta egindako gastuak, ongi egin dela kontratuei buruzko kontrola eta arauekin dat datorrela kontratuaren administrazio tramitazioa. Hona salbuespenak:

- Zerbitzuak kudeatzeko kontratuetan ez da jasota ageri zerbitzua ustiatzeko aurreproiektuak –nahitaez egin beharrekoak– egin eta onetsi direnik, eta horiek kontratuaren zenbatekoa finkatu eta kontratazio prozedura abiarazi ahal izateko aldeaz aurretik bete beharreko baldintzak dira.

- Aparkatze mugatuaren zerbitzua kudeatzeko kontratuaren exekuzioan gabeziak antzematen dira tasa-dirubilletaren kontrola eta hartzailearen obligazioen kontrola direla eta.

Jakina, txosten honetan aztertutako epea ikusita, erosketak egiteko prozedurak aurreko urteko berberak dira, erosketak kudeatzeko aplikazio berria ezartzekotan baitaude. Hortaz, indarrean faude aurrekon txosteneko hainbat gomendio. Hona:

- *Erosketa Batzordea eratzea –batez ere erosketa gaietan alorrei aholkuak eman eta horiek koordinatzeko ardura duen udal organoa izanen litzateke.*

- *Kontratazio espedienteetan ondokoak sar-tzea:*

- Zerbitzuak kudeatzeko kontratuen ustiapenerako aurreproiektuak egin eta onestea.*

- Espedientea prestatzeko fasean, zerbitzu juridikoen txostena gehitzea.*

- Kontratu bakoitzean aplikatu beharreko araubide juridikoa argi eta garbi azaltzea.*

- Ziurtagiri bat eranstea jasotako proposamen kopuruarekin.*

- Plegu estandarizatuak erabiltzea.*

VI.6. TRANSFERENTZIA ARUNTETAKO GASTUAK

Atal honetako gastua 1.440 milioi pezetakoa izan da, hau da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 1 gutxiago.

Kapitulu honetako gastu handienak honakoe-tan egin dira (milioitan): haur eskolak –435–, Hiri-gintza Gerentzia –226– COTUP –117– eta institu-zioak –395.

Gastuen epigrafe honetan egindako azterketa-rekin bat, hona gure gomendioak:

- *Entitate, elkarte zein gainontzekoekin eginiko hitzarmenen kontrol zentralizatu egitea, ondoko-ak zehatzuz: zenbatekoa, diruz zer kontzeptu lagunduko den, araudia eta kontrol perozedurak.*

- *Udalaren kirol eskolentzako dirulaguntzen alorra areago kontrolatzea, gastuen likidazioa eta oroit-idazkia behar den era eta epeetan aurkezte-ko eskatuz.*

VI.7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK

Atal honetan, 560 milioi pezeta gastatu dira 1999an.

Gastu bolumenari begiratuta, ondokoak dira, milioitan, kontzepturik behinenak: Hirigintza Gerentziarako transferentziak (berrostatzeak), 329; familientzako transferentziak (etxebizitzak zaharberitzea), 198; garapen bideko herrialdeeki-ko lankidetzak, 28; erakunde autonomoak, 51.

VI.8. INBERTSIOAK

Aitortutako obligazioek 3.376 milioi pezeta egi-ten dute, hau da, aurreko ekitaldian baino ehune-

ko 68 gehiago, orduan 2.016 milioi pezeta baitziren. Halere, behin betiko aurrekontuaren betetze maila ehuneko 49koa izan da; hortaz, pixka bat igo da 1998ko betetze maila apala –ehuneko 42–. (Inbertsioen aurrekontu bateratuaren betetzea 3.977 milioikoa da, Hirigintza Gerentziako eta Haur Eskoletako 601 milioiak gehitu eta gero).

Inbertsioen kapitulu honetako zenbatekoak udalak betetako aurrekontu osoaren ehuneko 16 egiten du ekitaldi honetan, ordainketen ehuneko 95 egin da eta ordaintzeke dago gainontzeko ehuneko 5.

Egindako aurrekontu aldaketen bidez, hasierako kredituak 3.612 milioi pezeta igo dira; horietatik gehienak aurreko ekitaldiko gerakinak gehitzetik heldu dira.

Ekitaldian gastatu gabeko aurrekontu-kredituek, beraz, 3.354 milioi pezeta egiten dute; horietatik 2.730 –ehuneko 82– 2000ko aurrekontuan sartzea erabaki zen 2000ko otsailaren 17an egindako osoko bilkuran.

Kapitulu honen aurrekontu-kudeaketa dela-eta, hauxe esan behar dugu:

- Ezarri den proiektuak kudeatzeko moduluak gabetia handiak ditu, ez baitu biderik ematen horien kudeaketa azkar eta baliagarria egiteko.
- Azken bi ekitaldietako aurrekontu-betetzeak erakusten duen legez, inbertsioak egiteko erritmoa eta egindako gastu aurreikuspenak ez datoz bat.

Gaur egun mugatu egiten da abenduaren 13tik aitzina egindako inbertsioen tramitazioa, eta ondorioz, ekitaldiko azken partea ez da kontabilitatean jasotzen, eta hartara, ekitaldi batean egindako gastuak hurrengo ekitaldian jasotzen dira, horrek alferrikako kreditu-gainerakuntzak tramitatu beharra eragiten du eta, era berean, desitxuratu egiten du urteko kontuak direla-eta udalak duen egoera ekonomiko-finantzarioa.

Ganbera honek, inbertsio proiektuen kudeaketa hobetzeko, hauxe gomendatzen du:

- *Proiektu bakoitzeko arduradun bat izenda-tzea, tramitazioa –bai administratiboa bai betetze erreala-arena– azkartu ahal izateko.*
- *Hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 15era bitarteko inbertsioak tramitatzea, aurrekontua betetzeko oinarrietan xedatuari jarraikiz.*
- *Oroit-idazkiari ekitaldian tramitatu diren inbertsio espedienteei buruzko informazioa gehitzea, ondokoei buruzkoa hain zuzen ere: erabilitako adjudikazio prozedurak, ekitaldian betearazitako kontratuak, lau urteko inbertsio plana edo programa zertan den eta abar.*

Egindako inbertsio obrei buruz alorretan zein emandako informazio orokorrean dagoen informazio zehatzik ez dagoenez, kapitulu honetako aurrekontuaren betetzeari buruzko azterketa sakona egin behar izan dugu, aztertu beharreko laginean egindako zer obra sartu erabakitzarren.

Aztertutako zenbatekoak 2.241 milioi pezeta egiten du, hau da, ekitaldiko zenabetako aitortuaren ehuneko 66. Hona zehaztasunak:

Aztertutako espedienteak	Adjudikazio prozedura	Zenbatekoa	Adjudikazioa, azpitik %	Egina 1999
Alde Zaharra eta Kale Nagusia berriro urb.	Lehiaketa	584.110.652	1,13	70.243.700
Alde Zaharra eta Estafeta Kalea berriro urb.	Lehiaketa	358.039.557	14,24	54.715.243
Alde Zaharra eta Zapateria-Pozoblanco b.u.	Lehiaketa	473.627.716	2,26	391.601.135
Santo Domingo kalea eta Santiago plaza zolatzea	Lehiaketa	37.620.945	2,26	33.374.294
Condestablearen Jauregia erostea				0
Iruñeko kuxtaren eraikineko 3 solairu erostea	Zuzena	900.000.000	0,00	344.000.000
Errotxapean zaintzapeko apartament. eraikitzea	Lehiaketa	246.159.898	9,62	79.777.916
Konpainia kaleko aparkalekua	Lehiaketa	361.622.400	13,28	0
Hilerriko sarbideak eta errauspen-labea	Lehiaketa	222.673.322	16,80	165.988.152
Garajeak konpontzeko epaia betetzea				71.105.685
Ezka bako desjabetzapean				923.197.550
Arga-Sanduzelai	Lehiaketa	86.612.806	14,75	38.728.621
Magdalena-Arga	Lehiaketa	133.803.556	0,40	0
Aranzadi-Arga	Lehiaketa	130.483.497	17,40	68.479.097
Loratagietarako kamioneta erostea	Negoziatua, pub.	3.795.000	5,13	0
Haur jokoak erosi eta instalatzea	Lehiaketa	42.549.114	1,05	0
Guztira		3.581.098.463		2.241.211.393

Hona egin dugun lanetik ateratako ondorioak:

- 1999ko ekitaldian –hori baita aztertu duguna–, inbertsioetan gastatutako 766 milioi pezeta egotzi zaizkio gutxienez ere 2000ko aurrekontuari; horietatik 550 higiezin bat erosteko ordainketa geroratuari dagozkio.

- Oro har, bete egiten dira administrazio publikoetako kontratazioetan aplikatu beharreko publikitate eta lehia printzipioak.

Bere horretan diraute 1998ko kontuei buruz ganbera honek egindako gomendio batzuk. Hona:

- *Kontratazio espedienteen oinarrizko alderdi juridikoei buruzko txosten juridikoak egin beharra.*

- *Kontratuei buruzko foru legearen zein aplikatzea den gainontzeko legeriaren arabera klausula ekonomiko administratibo orokorrak pres-tatu beharra.*

- *Kontratazio espedienteetan hautatze prozedura aurkeztutako eskaintzei buruz Udal Erregis-troak eman beharreko ziurtagiria azaldu behar da.*

- *Lehiaketa prozesuan erabilitako hautatze iriz-pide bakoitzari esleitu zaion puntuazioaren bana-keta egiteko irizpideak zehaztu behar dira.*

- *Abalak erregistratu, zaindu eta itzultzeko prozedura ezarri beharko litzateke, eta udal diruzain-tzan zentralizatu.*

- *Inbertsio proiektuen alderdi administratibo eta teknikoak kudeatzeko arduradunak izendatu beharko lirateke alorretan, eta horiek proiektuen berri eman beharko lukete aldira Alorreko Idazka-ritza Teknikoaren bidez.*

VI.9.FINANTZA-PASIBOAK

Kapitulu honetan 1.135 milioi pezeta gastatu dira, eta hortaz, aurreko ekitaldiarekin alderatuta ehuneko 69 egin du gora.

Maileguetako 1.009 milioi alde aurretik amortizatu izanari zaor zaio batez ere halako betetze maila.

VI.10. TRIBUTU BIDEZKO DIRUSARRERAK

VI.10.1. Zergak

1998ko aurrekontu-kitapenaren arabera, zerga mota nagusiek ondoko xehetasunak azaltzen dituzte:

(Pezetak, milioitan)

Zergak	Zenbatekoa	% kobranta
Hirilur kontribuzioa	2.417	97
Ekonomi jarduerak	1.231	85
EIOZ	594	88
Ibilgailuak	823	94
Lurren balioaren igoera	679	69
Luxu gastuak	323	100

Tributu bidezko dirusarreratako 1 eta 2. kapituluak, guztira, Udalaren dirusarreraren ehuneko 31 egiten dute; betetze maila, aldiz, ehuneko 113koa da, eta kobrantza porzentajea, gutxi gorabehera, ehuneko 90ekoa, kobrantza kudeaketa egokiaren adierazgarri.

Udalak derrigorrezko zerga guztiak kudeatzen ditu, eta borondatezkoen artean, bingoko sarien gaineko zerga da aplikatzen duen bakarra. Bete gabe dauden etxebizitzaren gaineko zerga ez da ordainarazten, nahiz eta ordenantza egon bada.

Aplikaturako tasei dagokienez, ondoko taulan, konparatu egiten dira Udalarenak eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoak:

Zerga	Iruñeko Udala	TOFL
Hirilur kontribuzioa	0,29	0,1-0,5
Landalur kontribuzioa	0,55	0,1-0,8
Ekonomi jarduerak	1,32-1,4	1-1,4
Lurren balioaren igoera	10,10	8-20
5 urte bitarte	3,7	2,7-3,8
10 urte bitarte	3,5	2,5-3,7
15 urte bitarte	3,4	2,2-3,6
20 urte bitarte	3,2	2,2-3,6
EIOZ	4,3	2-5
Luxu gastuak-Bingoa	6	10

Egindako azterketaren arabera, udal zergen kudeaketan erabilitako prozedurak egokiak dira oro har, eta aurrekontuan azaltzen diren dirusarrerak behar bezala erakusten dute zein den Udalaren egoera.

Gure gomendioa da bingoko sariei buruzko zerga dela-eta, Nafarroako Gobernuko zerbitzuekiko koordinazioa hobetzea; helburua da zerga kudeatzeko oinarrizko informazioa –zenbat kartoi saldu den– zehaztasun handiagoz jasotzea.

VI.10.2. Tasak eta prezio publikoak

Dirusarreraren aurrekontuko 3. kapituluaren 2.725 milioiko eskubide aitortuak azaltzen dira; betetze-maila ehuneko 125koa da, eta kobrantza portzentajea, aldiz, ehuneko 80koa.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu honek ehuneko 47 egin du gora, batez ere aparkatze mugatua (MUGA) dela-eta 641 milioiko zenbatekoa aitortu delako.

Ondoko taulan, 25 milioitik gorako eskubide aitortuak azaltzen dituzten tasak agertzen dira:

Tasa eta prezio publikoak	Zenbatekoa
Ibilgailuak eramatea	108
Aparkalekuak	152
Hirugarren Adinekoentzako arreta	47
Kirol instalazioak	80
Hilerriaren zerbitzuak	97
Establezimenduen irekiera	82
Hirigintza lizentziak	95
ORA	641
Mahaiak eta aulkiak	42
Industria ibiltariak	53
Probetxamendu bereziak	302
Aparkatzeko tokien erreserbak	85
Isunak eta zehapenak	310
BOEak deskalifikatzea	128

Tasa eta prezioen lagin bat aztertuta, kudeaketa-prozedura, oro har, egokia dela ikusten da; halere, hauxe gomendatzen dugu:

- *Zerbitzu publikoak ematearen benetako kostua zehazteko prozesu eta azterketarekin jarraitzea.*

- *Aparkatze mugatuko (MUGA) tasari aplikatu beharreko barne kontrola osatzea.*

VI.11. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITALEKOAK

9.445 eta 718 milioi aitortu dira, hurrenez hurren. Hona horiei buruzko xehetasunak, jatorriaren arabera emanak:

	Reconocido Corrientes	Reconocido Capital
Estatukoa	217,40	–
Nafarroako Gobernukoa	9.211	160
Erakunde pribatuetakoa	1,20	–
Europako Batasunekoak	15,60	318
Bestelakoak		10
Guztira	9.445,20	718

Egindako azterketaren arabera, kontzeptu horiek direla-eta dirusarreraren aurrekontuan kontabilizatu eta aitortutako zenbatekoak arrazoizkoak dira.

VI.12. ODARE DIRUSARRERAK ETA HERRI-LURRETAKOAK

Aitortutako eskubidek 255,2 milioi egiten dute, eta kobrantza portzentajea ehuneko 99koa da. Hona xehetasunak:

	Aitortua (pezetak, milioitan)
Titulu balioen interesak	2,2
Aurrerakinak eta maileguak	0,9
Gordailuetako interesak	117,2
Irabaziak	20,7
Ondasun higiezinak errentak	48
Emakidak eta aprobetxamendu bereziak	66,2
Guztira	255,2

Egindako azterketaren arabera, kontzeptu horiek direla-eta dirusarreraren aurrekontuan kontabilizatu eta aitortutako zenbatekoak arrazoizkoak dira eta aplikatu beharreko legeria aplikatu da.

VI.13. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA

309,7 milioi aitortu dira, lursail batzuk saldu izanari dagozkionak.

VI.14. FINANTZA KONTUAK

Epigrafe honetako saldoa 5.282 milioi pezeta-koa da.

1999an, bankuko saldoetako funts erabilgarriek 5.146 milioi pezeta egiten dute.

Funts horiek Iruñeko Aurrezki Kutxan –egun Nafarroako Kutxa– metatzen dira batez ere. Horien 1999ko etekina 120 milioipezetakoa izan da. 1998an 102 milioikoa izan zen.

Diruzaintzako egoera on horri esker, arraiozko epetan ordaintzen ahal zaie hornitzaileei.

Ondare-masa horri buruz egindako azterketaren ondorioz, hauxe gomendatzen dugu:

- *Aplikatzeko dauden kontusailletako ordainke -ta bikoiztuen kontua erregularizatzea 3 milioirekin.*

- *Aurreko urteetatik justifikatu beharreko libra -menduen kontua erregularizatzea 9,8 milioirekin.*

- *Arauk edo jarraibideak ematea diruzaintza ez besteko kutxako kontuen funtzionamendua dela-eta.*

- *Sinadura mankomunatua erabiltzea bankuko funtsak erabili ahal izateko.*

- *Diruzaintzako koadratze orokorra –urteko kontuen zati gisa– lortu ahal izateko beharrezkoak diren tresnak ezartzea, bertan bilduz ordainketa eta kobrantza guztiak, bai eta diruzaintzako hasiera zein bukaerako izakinak ere.*

VI.15. ZORDUNAK

1999ko abenduaren 31ko saldoa 2.540 milioi-koa da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 5 gutxiago.

Egin dugun azterketaren arabera, balantzean azaltzen diren saldoek behar bezala agertzen dituzte udalak kobratzeke dituen eskubideak.

Salbuespen gisa, kobratzeke dauden isunak kutxako irizpideei jarraikiz kontabilizatzen dira kobratzen diren unean; horrela, 1999ko abenduaren 31n 443 milioi pezeta daude kobratzeke eta kontabilitatean islatu gabe.

VI.16. IBILGETUA-INBENTARIOA

Aurreko ekitaldian emandako aholkuek oraingoan ere balio dute. Inbentarioaren egoera eta ibilgetuarekiko lotura bere horretan dira, hau da, egungo akatsak konponduko dituen aplikazio informatiko berria ezartzeko zain. Dena den, inbentariatu gabeko ondasunak identifikatzen jarraitzen dute, bai eta erosketari berriak erregistratzen ere.

- *Balantzearen barruan “Inbentariatu gabeko ibilgetua” kontua azaltzen da. Kontu hori 2.221 milioikoa da, baina, izenak berak dioten legez, ez dira inbentarioan sartzen. Zenbateko hori, ordea, ondasun identifikatuen zerrenda bati dagokio.*

- *“Azpiegituretako eta erabilera orokorrerako ondasunetako inbertsioak” eta horren baliokide –pasiboan– “Erabilera orokorrerako ondarea” ize-nekoei buruzko ibilgetu-kontuak ez dira erabili.*

- Ibilgetuak ez du ematen lagatu/atxikitako ondasunei buruzko informaziorik, eta ez da Ondareari dagokion kontua erabiltzen, ezta hartzailea udala bera denean ere.

- Ez dira udal inbentarioan sartu udalaren menpekoak izaki nortasun juridiko berekia duten entitateen ondasunak eta eskubideak.

- Udalaren lur ondarea ez da inbentarioan zehaztuta azaltzen.

- Osoko Bilkurak 1993an hala erabakita, altzariak, fotokopiagailua eta faxa salbu, ez dira inbentarioan –hain gutxi balantzean– sartzen.

Gure gomendioa da udal inbentarioa eta horren ibilgetua hobetzeko prozesuarekin jarraitzea, udal ondasunen kontrol eta kontabilitate-islategokia bermatzearen.

VI.17. EPE LABURREAN JASOTAKO FIDANTZA ETA GORDAILUAK

Balantzeko kontu honek –575,4 milioi pezeta-ko saldoa du– ondoko xehetasunak azaltzen ditu:

	Saldoa 99/12/31n
Epe laburreko fidantzak	462,3
Gordailuak	113,1
Guztira	575,4

Udalak fidantza saldoen berrikuspen lana egin du, baina erregularizatu gabe dago kontabilitate saldoa.

Gure gomendioa da fidantza kontuak aztertzean agerian geratu diren doiketak eta birsailkapenak egitea eta antzeko lana egitea gordailuen kontuan, saldoetan egin beharreko kontabilitateko doiketak eginez.

VI.18. AITORTUTAKO OBLIGAZIOETAKO HARTZEKODUNAK

Balantzekontu honetako saldoa 2.141 milioi pezetakoa da, hau da, aurreko ekitaldiko saldoa baino ehuneko 23 gutxiago, 2.774 milioikoa baitzen.

Egindako azterketaren arabera –hor sartzen dira saldoaren ehuneko 31ren zirkularizazioa eta inbertsio gastuen kapitulua aztertzean ateratako ondorioak–, 2000ko ekitaldian onetsi eta kontabilitzatu dira 1999ko 210 milioiko fakturak, hau da, 1999ko ekitaldian erregistratu ez diren hartzekodunak eta gastuak, eta horiek dira hain zuzen ere gure azterketaren helburu.

Ez dira jaso hirugarrenen aurreko obligazio guztiak, toki araubiderai buruzko araudia estu-estu interpretatu izan delako –araudi horren arabera, ezin dira tramitatu kontu-hartzailetzara abenduaren 13a baino beranduago heldu diren fakturak–. Jokabide hori aurrekontua betetzeko oinarrien aurkakoa da; izan ere, administrazio publiko guztietan ohikoa den legez, hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 15a arte tramita daitezke horiek.

VI.19. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Zerga horrek sortzen dituen formazko obligazioen kudeaketa eta betetzea eskasa da. Eta hala:

- Egungo kontabilitate-sistemarekin ezin daiteke egin oinarrizko kudeaketa automatikorik eta ezin dira bete formazko obligazioak, eta, horrenbestez, aldiro egin behar dira eskuz kalkulu-eragiketak.

- “Ogasun Publikoa BEZa” ataleko kontabilitate saldoek ez dute 1999ko abenduaren 31ko egoera islatzen.

- Aitorpenak berandu aurkezten dira.

- Derrigorrezkoa den arren, ez dira erregistro liburuak egiten.

Gure gomendioa da, beti ere, zerga honi buruzko lege xedapenak aplikatzea.

VI.20. HIRIGINTZA

Iruñeko HAPO –1984koa–, 1995ean hasi zen berrikusten. Berrikuspen hori osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batez 1999ko otsailean. Planari aurketzutako alegazioak ari dira ebazten egun.

Ez da jasota ageri txostenik egin denik 1984ko planean ezarritako helburuen betetze-mailari zein jarduketa programaren jarraipenari eta plan ekonomiko-finantziarioari buruz.

Hirigintza- eta kontabilitate-obligazioen bete-tezeari buruz, adierazi beharra dago Udalaren Lur Ondarea oraindik orain eratu gabe dagoela. Ez da jasota ageri Hirigintza Hitzarmenen eta Orubeen erregistroak ezarri direnik, nahiz eta horiek ezartzeko lanean ari diren.

Hirigintza- eta kontabilitate-obligazioak bete daitezzen gomendatzen dugu.

VI.21. GORABEHERAK

Ondokoak dira, Udaleko Idazkaritza Nagusiak igorritako informazioaren arabera, auzibidean ebazteko zain dauden errekurtsioak –ekonomia aldetik garrantzirik handien dutenak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Rincón de la Aduana-ko parkinari buruzko administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, erabiltzaileengan BEZak duen eragina dela-eta.	58
Eguesibarrek jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Toki Ogasunen Parte-hartze Funtsaren banaketa dela-eta	90
Celebration Colors-ek jarritako auzi-errekurtsioa, izotz pistaren aprobetxamendu bereziaren gaineko tasak direla-eta	6
Autobusen geltokiari buruzko proiektuko sariak (interesak eskatu dituzte)	22
Carlos IIIeko lurrazpiko aparkalekuko obrek eragindako kalteak direla-eta ondare erantzukizuna eskatzeko administrazioarekiko auzi-errekurtsioa	28
468/99 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsioa. Lurzati enkantea	59
22/00 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsioa. Aprobetxamendu unitateak	14
Kasazio errekurtsioak eta ebazteke dauden beste batzuk, hirigintza aprobetxamenduen transferentziei buruzkoak eta gisakoak mantentzea	100

Arestiko zenbatekoak gutxi gorabeherakoak dira, ez baita posible jakitea errekurtsio horiek Udalaren aldekoak edo haren kontrakoak izanen diren.

Bestalde, abenduaren 31n, Udalak bete beharreko zerga guztiak ikuskatzeko zabalik daude, eta hortaz, behin betiko kitapena egiteke dago.

VI.22. ERAKUNDE AUTONOMOAK, ENPRESAK ETA FUNDAZIOAK

Atal honetan, egindako lan osagarriekin bate-

ra, auditoretza txostenetako ondorio nagusiak bil-tzen dira.

Datu ekonomiko nagusien aurkezpena eske-matizatzearen, entitatei buruzko ondorio nabar-menak ematen dira 2. laukian –erakunde auto-nomoak– eta 3.ean –enpresak eta fundazioak.

VI.22.1. Erakunde autonomoak

Bi erakunde autonomo daude: Hirigintzako Gerentzia eta Haur Eskolak, eta ondokoak dira 1999ko aurrekontuaren betetzeari buruzko daturik nabarmenenak:

Gastu eta dirusarreraren betetzea (Pezetak, milioitan)

GASTUAK	Aurrekontua	Aitortua	Ordainduta	Ordaintzeke	Egindak. %
Hirigintza Gerentzia	5.711	806	657	149	14,11
Haur Eskolak	618	569	533	36	92,03
DIRUSARRERAK	Aurrekontua	Aitortua	Dirusarrera	Sartzeke	Egindak. %
Hirigintza Gerentzia	5.711	1.109	808	301	19,41
Haur Eskolak	618	597	580	18	96,60

Gastuak eta dirusarrerak bere izaeraren arabera (Pezetak, milioitan)

GASTUAK	Hirigintza Gerentzia	Haur Eskolak
Langileak	130	462
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	66	82
Transferentzia arruntak	0	1
Inbertsio errealak	577	24
Kapital transferentziak	33	0
Guztira	806	569
DIRUSARRERAK	Hirigintza Gerentzia	Haur Eskolak
Tasak eta bestelako dirusarrerak	0	141
Transferentzia arruntak	226	444
Ondare dirusarrerak	98	0
Kapital transferentziak	784	13
Finantza-aktiboaren aldaketa	0	0
Guztira	1.109	597

Udalaren ekarpena (Pezetak, milioitan)

Transferentziak	Hirigintza Gerentzia	Haur Eskolak
Arruntak	226	435
Kapitalekoak	329	13
Guztira	555	448

Hirigintzako Gerentzia

Auditoretza txostena aldekoa da, baina:

“Poligonoak urbanizatzeko jabeen igorritako kuotak, oro har, urbanizatzeko kostuen kontura igorritako zenbatekoak dira; halere, Gobernuak eta VINSAK ordaindutako kuotak –2.000 milioi pezetatik gora– behin betiko kuotak dira, eta halatan, entitate horien lurzatiei legezkiekeen kostu handiagoak Iruñeko Udalak ordaindu beharko ditu.”

Txostenean orobat azpimarratzen da ezen Gerentziak, nortasun juridiko berekia izan arren, ez duela kudeaketa egiteko independentziarik, udalaren aginduetara makurtu behar baitu ezdozterako.

Berriro ere azpimarratu da Kontuen Ganbarak behin eta berriro eman eta udal kontu-hartzailetzak bere egindako gomendioa, alegia, hirigintza-poligonoetako kontuak zehaztu eta argitu behar direla, batez ere zaharretakoak, obrak bukatutakoan behin betiko kitapena egin eta urbanizazio kuotak doitzearren.

Gerentziaren oroit-idazkiak dio "hirigintza-poligono guztietako kostuen kontabilitatea gaurkotu eta berrikusten ari gara une honetan."

Bestalde, finantza egoeren orrietan udalaren eta gerentziaren egoera zordun/hartzekoduna aztertzean, udalaren saldo zordun zein hartzekodunak erregularizatzeko asmoa dagoela esaten da, 2000ko ekitaldiaren erdi aldera bukatuko baita hirigintza poligonoetako kostuen kontabilitatearen berrikuspena, une honetan egiten ari direna,

Gerentziak, martxo bitarte, diruzaintzako saldo handiak ditu jarriak zor publikoaren negoziazio-merkatuan eta hortik aitzina inbertsio kontuetan (3.648 milioi 1999ko ekitaldia ixtean).

Gure gomendioa da, 1996ko txostenean esaten genuen legez, Gerentziak erakunde autonomo izateari eustea edo, bestela, udal zerbitzu gisa

Udalaren egituraren sartzeari komenigarri eta egoki den aztertzea.

Iruñeko Udalaren Haur Eskolak

Auditoretza txostena aldekoa da, baina entitateak inbertsioak bailiren sartu ditu hainbat ikastetxetan egindako obrak, nahiz eta ikastetxe horiek udal jabetzakoak izan, eta hortaz, ondasun atxikitzeak jo beharko lirateke.

Erakunde autonomoen jarduerak ez dira kontu-hartzen, baina, ganberaren gomendioei jarraituz, urtero egiten dira kontu-hartzailetzak zuzendu eta koordinatutako auditoretzak.

VI.22.2. Enpresa publikoak

Iruñeko Udalak hiru enpresa publikotan parte hartzen du: Comiruña, Animsa eta Mercairuña. Hauexek dira, 1999ko ekitaldia ixtean, horiei buruzko xehetasun aipagarrienak:

Egoera-balantzearen laburpena (Pezetak, milioitan)

	AKTIBOA			PASIBOA		
	Garbia, guztira	Zirkulatzaila	Finkoa	Zirkulatzaila	Epe luzera	Ondare-garbia
Comiruña	87	82	6	14	8	66
Animsa	487	147	340	141	217	130
Mercairuña	639	461	178	12	76	551

Egoera-balantzeari buruzko azterlana (pezetatan)

	Comiruña	Animsa	Mercairuña
Maniobra-fondoa (AC-PC)	68.100.105	6.252.000	448.732.489
Cash Flow (Etekin likidoa + amortizazioak)		55.051.000	44.896.381
Likidezia ratioa (AC/PC)	6,03	1,04	37,64
Zorpetzea, guztira (Galdagarria, guztira/Garbia)	0,32	2,75	0,16
Errentabilitatea (Etekin/Garbia x 100)	(8,49)	15,71	5,65

Galeren eta irabazien kontuaren laburpena (Pezetak, milioitan)

	Dirusarrera arruntak	Gastu arruntak	Eragiketa berezien emaitza	Emaitza	
				1999	1998
Comiruña	102	107	0	(6)	3
Animsa	457	483	46	20	22
Mercairuña	152	123	2	31	99

Hiru enpresa horiei buruzko auditoretzak garbiak doira oso, inolako salbuespen eta erresebarik gabeak.

VI.22.3. Fundazioak.

Udalak bi fundazio ditu 1999a bukatzean: Erruki Etxea eta Gaiarre Fundazioa. Hauexek dira, 1999ko ekitaldia ixtean, horiei buruzko xehetasun aipagarrienak:

Egoera-balantzearen laburpena (Pezetak, milioitan)

	AKTIBOA			PASIBOA		
	Garbia, guztira	Zirkulatuzailea	Finkoa	Zirkulatuzailea	Epe luzera	Ondare-garbia
Erruki Etxea	2.951	2.133	818	863	137	1.951
Gaiarre Fundazioa	142	93	49	36	0	105

Egoera-balantzeari buruzko azterlana (pezetatan)

	Erruki Etxea	Gaiarre Fundazioa
Maniobra-fondoa (AC-PC)	0,49	0,58
Cash Flow (Etekin likidoa + amortizazioak)	1.270.402.901	56.042.392
Likidezia ratioa (AC/PC)	107.033.512	15.467.607
Zorpetzea, guztira (Galdagarria, guztira/Garbia)	2,47	2,54
Errentabilitatea (Etekina/Garbia x 100)	2,72	14,88

Galeren eta irabazien kontuaren laburpena (pezetatan)

	Dirusarrera arruntak	Gastu arruntak	Eragiketa berezien emaitza	Emitza	
				1999	1998
Erruki Etxea	1.815.908.623	1.747.620.216	(14.281.528)	54.006.879	176.612.774
Gaiarre Fundazioa	238.914.439	228.946.493	(622.182)	9.345.764	15.187.539

Ez da auditoretzarik egin Gaiarre Fundazioaren –1998an sortua– egoera orriak direla-eta.

Bere horretan diraute fundazioei buruzko foru legeko hainbat xedapen bete ez izanari buruz 1998ko txostenean esandakoek. Hona:

- Ez da kuantifikatzen antzokiaren aprobetxamendu eskubidea, nahiz eta foru legeak espresuki esan dirurik gabeko ekarpenak kuantifikatu eginen direla eta aplikatutako balioespen-irizpideak adieraziko direla.

- Fundazioari eratze-egintzan atxikitako ondarea ez da aski haren helburuak betetzeko –foru legeak hala agindu arren–, zeren, eskritura publiko bihurtutako ekonomi txostenean ikusten den

legez, 18 milioiko ekarpena 2 hilabeteko finantza-beharrizanei baitagokie soil-soilik. Egindako jarduerak sortutako aurrekontu-defizita estaltzeko balio izan dute batez ere gero dirulaguntza bidez egindako ekarpenek.

- Eratze-estatutuetan, Fundazioak uko egiten dio espresuki legearen aginduz Foru Komunitateko Administrazioak haren kudeaketaren gainean egin behar duen ikuskapenari.

- Fundazio bat da, definizioz, fundatzailearen borondatez legezko intereseko helburu iraunkor bati atxikitako ondarea; horrenbestez, aztertu dugunaren moduko entitate bat ez zaio estu-estu lotzen fundazioen egungo araubideari; izan ere, haren ondarea, iraungiz gero, edozein unetan itzul

baitakioke fundatzaileari, hark hala nahi baldin badu.

Erruki Etxeari buruzko auditoretza garbia da, baina zalantza sortzen du 1994ko ekitaldira arte sozietateen gaineko zerga aplikatu izanak.

1999ko ekitalditik aitzina, irabazi asmorik gabeko entitateen plan berezira egokitu du kontabilitatea.

Arestikoak ikusita, hona gure gomendioak:

- *Udalaren menpeko entitate guztiek egin behar dute urtero kanpo auditoretza. Azterketa prozesu horretan, kanpoko txosten horrek espre-suki azaldu beharko du kontratazio eta aurrekontu arloko legezketasun hatsapenaren betetze maila, bereziki erakunde autonomoen kasuan.*

- *Udal Kontu-hartzaitzak zuzendu beharko du kanpoko auditoreak hautatzeko prozesua eta horien lanaren koordinazioa.*

- *Kontabilitateko plan orokorraren egokitzapen berariazkoa aplikatu behar du Gaiarre Fundazioak.*

- *“Gaiarre Antzokia Fundazioa” lege aldetik fundazio izaten jarraitzeko egokitasuna aztertzea; aztertu egin beharko litzateke, esate baterako,*

erakunde autonomo edo udal zerbitzu dezentralizatu bihurtzeko aukera.

Francisco Javier Sesma Masa auditoreak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

GEHIGARRIA

FINANTZA-EGOERA 1999KO ABENDUAREN 31N

Gehigarria honako atalotan banatu dugu:

a) 1999ko aurrekontu bateratuan nabarmendu beharreko alderdiak.

b) Ratio eta magnitude nabarmenenak.

c) Zorpetzearen egoera.

A) 1999KO AURREKONTU BATERATUAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK.

Udalaren eta erakunde autonomoen 1999ko aurrekontu bateratuaren betetzea ondoko taulan azaltzen da:

IRUÑEKO UDALA - 1999 EKITALDIKO BETETZE BATERATUA

	Euroak, milakotan	Pezetak, milakotan	%
ORGANIKOA: NORK GASTATZEN DUEN			
Administrazio orokorra	117.107	19.484.899	93
Erakunde autonomo administratiboak	8.262	1.374.646	7
GUZTIRA	125.368	20.859.544	100
EKONOMIKOA: A.- NOLA GASTATZEN DEN			
I. Langileen gastuak	51.803	8.619.293	41
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	34.112	5.675.807	27
III. Finantza-gastuak	1.320	219.613	1
IV. Transferentzia arruntak	4.692	780.605	4
VI. Inbertsio errealak	23.904	3.977.361	19
VII. Kapital transferentziak	1.528	254.225	1
VIII. Finantza-aktiboak	1.184	196.973	1
IX. Finantza-pasiboak	6.826	1.135.668	5
GUZTIRA	125.368	20.859.544	100
EKONOMIKOA: B.- ZERTAN GASTATZEN DEN			
I. Funtzionamendu gastuak	85.915	14.295.099	69
II. Finantza-zama	8.145	1.355.281	6
III. Transferentziak	6.219	1.034.830	5
IV. Inbertsio gastuak	25.088	4.174.334	20
GUZTIRA	125.368	20.859.544	100
EKONOMIKOA: C.- GASTUAK NOLA FINANTZIATZEN DIREN			
I. Zerga bidezko dirusarrerak	53.715	8.937.446	43
II. Transferentziak	63.896	10.631.384	51
III. Ondare dirusarrerak	3.982	662.571	3
IV. Finantza eragiketak	1.194	198.745	1
V. Soberakina	2.581	429.398	2
GUZTIRA	125.368	20.859.544	100
FUNTZIONALA: ZERTARAKO GASTATZEN DEN			
Etxebizitza eta hirigintza	31.977	5.320.454	26
Seguratuena eta babes zibila	20.196	3.360.357	16
Seguratuena eta babes zibila	14.152	2.354.719	11
Hezkuntza	11.406	1.897.736	9
Kultura	9.800	1.630.650	8
Administrazio orokorra	8.196	1.363.744	7
Zor Publikoa	8.076	1.343.802	6
Komunitatearen ongizatea	7.261	1.208.075	6
Gizarte sustapena	5.268	876.572	4
Ekonomia arauketa	3.638	605.332	3
Osasuna	2.621	436.134	2
Bestelakoak	2.776	461.968	2
GUZTIRA	125.368	20.859.544	100

Azterketa horretatik, hauxe nabarmentzen dugu:

- Gastua, guztira, 20.859 milioikoa da –125 milioi euro–; ehuneko 93 Udalari dagokio, eta gaintzekoa erakunde autonomoei.

- Kapitulu ekonomikoari erreparatuta, langileen gastuek –ehuneko 41–, ondasun arrunten erosketak –ehuneko 27– eta inbertsioek –ehuneko 19– Udalaren gastuaren ehuneko 87 egiten dute.

- Finantza-zamak sortutako gastuek –korrituak eta amortizazioa– aurrekontuaren ehuneko 6 egiten dute.

- Gastu-funtzioari dagokionez, Etxebizitza eta Hirigintzak, Gizarte Babesak eta Hiritarren Babespenak gastuaren ehuneko 53 justifikatzen dute gutxi gorabehera. Hezkuntza eta Kulturak, aldiz, ehuneko 17.

- Gastu horien finantziazio iturriak honakoak dira: transferentziak –ehuneko 51–, batez ere Nafarroako Gobernuarenak, eta zerga bidezko dirusarrerak –ehuneko 43.

- Udalaren aurrekontuaren betetzeari soilik erreparatuta –ikus VI. atala:

- Hasierako aurrekontua ehuneko 22 –4.538 milioi– igo da aldaketak direla medio, batez ere aurreko ekitaldiko kreditu-gerakinak sartu direlako –guztira 2.793 milioi. Aldaketa horiek 1998ko diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatu ziren batez ere.

- Gastuen betetze maila ehuneko 81ekoa da. Aipagarria da inbertsioen kapituluaren ehuneko 49koa dela.

- Esandakoaren ondorioz, 2000ko ekitaldian kreditu-gerakinak sartu dira –guztira 2.784 milioi.

- Dirusarreretan, betetze maila ehuneko 95ekoa da; aipatu egin beharra dago zerga bidezko dirusarreraren –ehuneko 105– eta ondare bidezko dirusarreraren –ehuneko 181– maila ona; aldiz, inbertsioen salmentaren betetze maila –ehuneko 44– eta jasotako kapital-transferentziena –ehuneko 53– espero baino baxuagoa izan da. Aipagarria da, azkenik, ez dela aurreikusitako mailegu bakar bat ere hitzartu behar izan, eta hortaz, dirusarreraren 9. kapituluaren betetzea 0 pezetakoa izan da.

- Ordainketen betetze maila ehuneko 95ekoa da, eta kobrantzena ehuneko 93koa, oso altua alegia; udal zergen kobrantza ehuneko 89koa da.

Erakunde autonomoen aurrekontuaren betetzea dela-eta, hauxe adierazten dugu:

- Hirigintza Gerentziaren aurrekontuak aldaketa handiak izan ditu, aurreko ekitaldian bezala, hasierako aurreikuspenak 2.896 milioi igo baitira, hau da, ehuneko 103. Aldaketa horiek inbertsio errealean kapituluaren gertatu dira batez ere.

Gastuen betetze maila, ordea, ehuneko 14koa baino ez da, inbertsioen kapituluaren betetze maila –ehuneko 12– eta kapital-transferentziena –ehuneko 6– baxuak izan dira eta. Hirigintzako Gerentziako arduradunek, aurrekontuko aurreikuspenak betetzen ez direla ikusita, kudeaketa txostenean esaten dute ez dituztela, orain arte ez bezala, kreditu gerakin guztiak sartuko, eta aurreikuspenak ekitaldian benetan egiten denari egokitu zaitzkiola.

- Udalaren Haur Eskolek, berriz, emaitza homogeenagoak izan dituzte, dirusarrenean eta gastuen betetze maila ehuneko 92koa eta 98koa izan baita, hurrenez hurren.

B) RATIO ETA MAGNITUDE NABARMENE-NAK.

Ondoko taulan azaltzen dira aurrekontu-betetze bateratutik ateratzen diren ratio nabarmenak.

IRUÑEKO UDALA - Datu bateratuak

Adierazle nagusiak	1999	1998	1999/1998 % aldaketa
Biztanle kopurua	184.145	182.338	1
Aurrekontuko superávit/défizit. (pztak., milioitan)	(429)	4.375	-
Dirusarrerak biztanle bakoitzeko (pezetak)	110.946	125.352	(11)
Gastuak, biztanleko (pezetak)	113.278	101.358	12
Finantza-zama, biztanleko (pezetak)	7.360	4.637	59
Zerga bidezko dirusarrerak per cápita (pezetak)	48.535	44.333	9
Gastu arrunta per cápita (pezetak)	83.061	76.559	8
Zorpetze maila (portzentaia)	7	5	45
Zorpetze muga (portzentaia)	20	19	3
Aurrezki garbia (Porcentaje)	12	14	(2)
Langileen indizea (portzentaia)	41	44	(6)
Inbertsio indizea (portzentaia)	20	20	1
Dirulaguntzekiko menpekotasuna (portzentaia)	51	45	13
Zorpetze ahalmena (portzentaia)	12	14	(12)
Zorra, guztira / Dirusarrera arruntak (portzentaia)	57	76	(25)

Haren azterketatik, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- 1999ko ekitaldian aurrekontuko emaitza negatiboa gertatu da, 429 milioi pezetakoa, hain zuzen ere inbertsio gastuak eta zorraren amortizazioa 1998ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerezekin finantzatu direlako. Beraz, Udalak 1999an lehendik metatutako aurrezki gastatu duela erakusten du soilik defizitak.

- Biztanle bakoitzeko zerga bidezko dirusarrerak ehuneko 11 jaitsi dira, eta gastu arruntak, aldiz, ehuneko 12 hazi. Izan ere, 1999an, diruzaintzaren egoera ona dela-eta ez da mailegurik hitzartu, eta 1998an ez bezala, lursailen salmentak ez du aparteko dirusarrerarik eragin. Gastua haztea, berriz, maileguen amortizazio aurreratuari, MUGA ezartzeari eta Mendillorri Iruñean sartzeari zor zaie.

- Finantza-zama, biztanle bakoitzeko ia ehuneko 59 igo da maileguen amortizazio aurreratuaren ondorioz, eta zorpetze-maila, berriz, ehuneko 5etik 7ra pasa da. Urrezki garbia, hortaz, bi puntu jaitsi da.

- Helere, zorpetze ahalmena 2 puntu igo da, dirusarrera arruntan eta funtzionamendu gastuen arteko aldea areagotu egun baita.

- Dirusarrera arruntan gaineko zorpetzea, guztira, ehuneko 76tik 57ra jaitsi da, amortizazio aurreratuari eta mailegu berririk ez hitzarteari esker.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 9 hazi dira, eta gastu arruntak, aldiz, ehuneko 8.

- Langileen gastuak ehuneko hiru jaitsi dira eta inbertsioak bere horretan mantendu. Gastatutako 100 pezetetatik 61 bideratzen dira kontzeptu horietara.

- Dirulaguntzekiko menpekotasuna ehuneko 45etik 52ra igo da; hau da, dirusarreretako 100 pezeta bakoitzetik 52 transferentzia eta dirusarreretatik datoz.

Ondoko taulan azaltzen dira udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen magnitude nagusiak:

Magnitueda/Entitatea	(pezetak, milioitan)		
	Udala	Hirigintza Gerentzia	Haur Eskolak
Diruzaintzako gerakina	4.235	3.657	72
Aurrekontuko emaitza	(761)	303	28
Ekonomia-emaitza	3.495	75	44

- Ekitaldi bukaerako diruzaintzako gerakinari esker hurrengo ekitaldietako gastuak finantzatu ahalko dira. Udal enteek, batez ere Udalak eta gerentziak, 7.964 milioiko diruzaintzako gerakina dute guztira. Zenbateko hori, ordea, ez da erabile- ra librekoa, zeren ehuneko 62 –4.920 milioi– inbertsioak finantzatzera atxikia baitago; gainontzekoa, 3.044 milioi alegia, hurrengo ekitaldietako gastuak finantzatzeko erabiliko dira erabiltzeko- tan.

Diruzaintzako gerakina dela-eta zalantza dago; izan ere, egin gabe dago hirigintza poligonoetako behin betiko likidazioa, eta horrek udal funtsetan eragin ekonomikoa izan lezake, auskalo zer-nola-koa.

- Udala solik aztertuz gero, azken 5 urteotan diruzaintzako gerakinak izan duen bilakaera ikus dezakegu ondoren:

Diruzaintzako gerakina	(pezetak, milioitan)
	Zenbatekoa
1995	(2.081)
1996	(1.533)
1997	1.246
1998	4.821
1999	4.235

Ikus daitekeenez, magnitude horrek bilakaera oso ona izan da azken urteotan, defizit handia izatetik aldeko saldo zabala izatera pasa baita.

C) ZORPETZEA

Balantzearen informazioaren arabera, ondoko taulan Udalaren 1995etik 1998ra bitarteko zor guztia, epe luze zein laburrekoa, azaltzen da, milioitan. Orobat azaltzen dira zorpetzearekin zeri- kusia duten hainbat adierazle esanguratsu:

Zorra	1995	1996	1997	1998	1999
Epe luzerakoa	3.459	5.077	7.398	8.214	7.079
Epe laburrekoa	4.832	6.477	3.552	4.091	3.665
Zorra, guztira	8.291	11.554	10.950	12.305	10.744
Zorpetze maila	%9	%7	%5	%5	%7
Zorpetze muga	%8	%6	%11	%19	%19
Zorra/dirusarrera arruntak	%68	%87	%74	%73	%58

- Epe laburrerako zorra egonkortu egin da 4.000 bat milioitan. Udaleko diruzaintzaren egoera onari esker, zorrak 60 eguneko epean ordaintzen dira, ezarritako ordainketa planari jarraituz.

- Epe luzerako zorra 1.135 milioi jaitxi da, ekitaldian eginiko amortizazioen eta mailegu berririk kontratatu ez izanaren ondorioz.


Laburbilduz, eta azken ondorio gisa, Udalak finantza egoera ona du epe laburrera, eta zorpetze ahalmena du epe luzera. 1999ko ekitaldian, bete eta hobetu egin dira Bideragarritasun Finantzarioari buruzko Planeko aurreikuspenak, eta horrela, finantza zama eta funtzionamendu gastuak –oinarrizko printzipioa da hori– dirusarrera arrunten bidez finantzatu dira.

Dena den, finantza planak baliagarri izaten jarraitzeko eta epe ertain-luzera udalaren jarduera ekonomikoko-finantzarioa bideratzeko, 1999ko aurrekontua betetzetik ateratako informazioarekin gaurkotu behar dira datuen proiektzioak. Kontuan hartu behar dira orobat Hirigintza antolamendura-ko udal planeko azterlan ekonomikoko-finantzarioa eta Hiriaren plan estrategikoa, horrela, agiri horiek prestatzean epe ertain-luzera egiten den planifikazioa baliagarria izanen da eta gaurkoturik egonen dira urteko aurrekontuekiko interakzioaren bidez.

Halaber, komeni da aurrekontu-zuhurtziaz jokatzea dirusarrera aurreikuspenak egitean eta gastua zorrotz kontrolatzea.

Azkenik, beharrezkoa da balantzeko saldo zaharrak garbitzen jarraitzea –ikus “Aplikatzeko dauden beste kontusailak”–. Hobetu egin behar dira ekitaldiko itxiera-eragiketak, eginiko gastu eta dirusarrera guztiak jasotzeko, eta berrikusi egin behar da gerentziarekiko harremana, Hirigintzako gerentziak kudetazen dituen hirigintzako poligono- en behin betiko likidazioa egin dezan premiatuz, horrek udal funtsetan eragin ekonomikoa izan bai- lezake, auskalo zer-nolakoa.

I. ERANSKINA. IRUÑEKO UDALAREN ORGANIGRAMA (1999)



Iturriak: 1998ko otsailaren 16an eguneratu eta 99/7/5eko Alkatearen aginduz aldatutako kudeaketa organigrama eta 2000/3/2an Udalbatzak onetsitako udalaren antolaketa administratiboaren erregelamendua.

II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

- Diru-sarrereren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

KONTUEN GANBARAK IRUÑEKO UDALARI BURUZ EGINDAKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO OHARRAK (1999KO EKITALDIA)

-I-

Ganberaren txostenak azpimarratzen du komeni dela kudeaketa tresnak ezartzea hainbat arlo koordinatzeko, eta alorren funtzionamendua zuzendu, arautu eta koordinatuko lituzkeen kudeatzaile lanpostua sortzeko aukera aztertzeke gomendatzen digu. Gomendio hori betetzeko, aurrekontuen koordinatzailearen zereginak aldatzekotan gaude, funtzio horiek beregain har ditzan.

-II-

Iruñeko Udaleko Kontu-hartzaitza dela-eta, ados gaude oro har Kontuen Ganbarak bere fiskalizazio txostenean adierazitakoarekin, baina, gure ustez, egoki da ondoko azalpenak ematea, hainbat konturi buruz dagoen informazioa osatzearren.

Halatan, komeni da afera horiek une honetan zertan diren azaltzea (ganberaren txostenean jasotakoaz gain):

a) Kontu-hartzaitzaren jarduketak langileen, dirusarreraren eta erakunde autonomoen alorrak direla eta.

– Langileen gastuei dagokienez, Langileen Departamentuari 2000ko ekainean eskatutako informazioa –prozedurei, dokumentazioari, espediente mota ezberdinak egiteko moduari... buruzkoa– jasotzeko eta nominen aplikazio berria –kontu-hartzaitza lana egiteko beharrezkoak diren zerrendak emanen dizikigu– erabat ezarria egoteko zain gaude. Jakina, bi horiek nahitaezko baldintzak dira langileen gastuak –esparru zabala zinez– direla-eta Kontu-hartzaitzak edozer egin ahal izateko, ganberak halako gastuei buruz emandako gomendio batean esaten den bezala.

– Dirusarrerari dagokienez, lehenengo eta behin gogorarazi egin beharra dago ezen, Aurrekontua Betetzeko Oinarriekin bat etorritik (eta TOFLko 248.4 artikulua eta TAFLko 312.4 artikulua arabera), “toki entitateek erabaki ahalko dute skubideen aurretiko fiskalizazioa ordezkatzeko kontabilitatean arrazoi-hartzeak berekin dakarrenarekin”. Egiteke dago, horrenbestez, “lagin teknika edo auditoria bidez gerora egin daitezkeen jarduketak egiaztagarriak fiskalizazioa”.

Hori dela-eta, eta horrek dakarren zailtasunaz jabetzeko, izan bdi kontuan Iruñeko Udala hori egiten lehendabizikoa izanen litzatekeela, Nafarroan ez baitu inongo entitaterik halakorik egiten une honetan, eta estatuan ere gutxi batzuk baino ez dira. Ganberak arlo horretan eginiko edozein ekarpen edo emandako edozein aholku arras lagungarri gertatuko litzaioke Udal Kontu-hartzaitzari.

– 1998ko fiskalizazio txostenean Kontuen Ganbarak emandako gomendioei jarraikiz, Kontu-hartzaitzak zuzendu eta koordinatu ditu kanpoko profesionalen jarduna erakunde autonomoen eta toki enpresa publikoen auditoretzak egiterakoan. Helburu horretara bideratu dira, hortaz, alor horretan egin beharrekoak.

Nominei zein dirusarrerari buruz egin beharrekoak azterketa lana egitea eskatuko du, eta espediente jakin batzuk aztertzea, baina gaur egungo langileak izanik ez da posible hori egitea.

b) Gastuen fiskalizazioari dagokionez, ganberak dioten legez, kontu-hartzaitza mugatua baino askoz ere aurretiko kontu-hartzaitza zabalagoa egiten dugu une honetan, nahiz eta garatu gabe izan “a posteriori” fiskalizazioa. Ganberaren gomendioa da “posteriori” egin beharreko lana bultzatzea, hala fiskalizaziokoa nola prozedurak aztertzea eta hobekuntzak ezartzeko. Halatan, Udal Kontu-hartzaitzak hartu beharreko neurriak hartuko ditu 2001eko ekitaldian.

-III-

Udalaren ekitaldia ixteko jarraibideak ganberaren ustez sortzen dituen eragozpenak direla-eta, ez da jarraibiderik emanen 2000ko ekitaldiari buruz, betetako gastuen tramitazioa ez mugatzeko. Hurrengo ekitaldiei begira, aurretiko jarduketak egiteko eta, ganberaren gomendioak goitik behera betetzeko, prozesu osoa antolatzen duten ixte arauak garatzeko asmoa dugu.

-IV-

Azkenik, Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoari buruz esandakoak direla-eta, ganberak dio “hirigintza-poligono guztietako kostuen kontabilitatea gaurkotu eta berrikusten ari gara une honetan”, baina kontabilitatearen berrikuspen hori eginga dago dagoeneko, eta lortutako datu horiek aztertzen ari gara une honetan, gero erregularizatzeko.

Iruñean, 2000ko abenduaren 18an

Alkatea: Yolanda Barcina Angulo

<p>PRECIO DE LA SUSCRIPCION</p> <p>BOLETIN OFICIAL Y DIARIO DE SESIONES</p> <p>Un año..... 6.300 ptas.</p> <p>Precio del ejemplar Boletín Oficial..... 150 » .</p> <p>Precio del ejemplar Diario de Sesiones..... 185 » .</p>	<p>REDACCION Y ADMINISTRACION</p> <p>PARLAMENTO DE NAVARRA</p> <p>«Boletín Oficial del Parlamento de Navarra»</p> <p>Arrieta, 12, 3º</p> <p>31002 PAMPLONA</p>
---	---